

BALEIKE

GUKA



ETXEBIZITZA

ATERPEA LUXU?



ENDAÑETAK
ez du saldu
bakarrik egiten,
arreta ere
ematen du

www.endañoetazumaia.com

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

TiEN21

**Uda eta
festak
aske bizi!**
Gozatu eta
gozarazi!



Festez
gozatu, eta
orduraz
kontsumitu.

Zumaia
Udala



ZUMAIA
BIZITZEKO
DA



BALEIKE 333

2023-UZTAILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|--|
| 5 | Korapiloa Maria Maya Manterola
<i>Hondartza bat denona</i> | 32 | Erretratua Maria Maya Manterola
<i>Maitane Urbieto, kirol kazetaria</i> |
| 6 | Hitz tanta Intza Trula <i>"Poza da guretzat horrelako zerbitzua ematea"</i> | 36 | Plazan bazan |
| 8 | Hainbat aburu Piztu kooperatiba
<i>"Uda bero-bero dator"</i> | 37 | Heziketa Mireia Centeno <i>Erlaxazio jolasak</i> |
| 9 | Errematea Miren Osa Galdona
<i>Bestelako jendartea</i> | 39 | Hamaika argi gure euskarari
Imanol Azkue Ibarbia eta Daniel Carballo Ostolaza <i>Herri langileak eta euskara</i> |
| 11 | Elkarrikketa Iosu Alberdi <i>Iñaki Osa Goikoetxea "Uste dut momentu perfektua dela"</i> | 44 | Izpiak eta hizkiak Sonia Alvarez
<i>Berpiztu eta sortu</i> |
| 15 | Erreportajea Jose Castillo Zumaia
<i>eta etxebizitza: bizitzeko herri bat, norentzat eta zenbat diruren truke?</i> | 46 | Literatura Antton Peñalba
<i>Lucyrengandik kantengana. Giza animaliairen bidaia miragarria</i> |
| 23 | Guka gara! | | |
| 24 | Guka <i>Norberaren gorputzaz harro, lodifobia jomugan</i> | | |

BALEIKE



Argitaratzailea
Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Zuzendaria
Maria Maya Manterola
mmaya@ukt.eus
Erredaktore taldea
Maria Maya Manterola
Onintza Lete Arrieta
Intza Trula
Iosu Alberdi

Jose Castillo

Argazkilaria
Arnaitz Rubio Aprea

Diselnu arduraduna
Ane Azkue eta Saioa Perona

Publizitate arduraduna
Felix Aizpurua
faizpurua@ukt.eus

Administrazio arduraduna
Uxua Ostolaza
uostolaza@ukt.eus

Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 1.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaia
Udala



ZUMAIA
BIZITZEKO
DA

Babesleak:



DANOBATGROUP

DOMUSA
T E K N I K

PUBLIZITATEA

a3 diseinua inprimatzea

Aita 8, 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 • fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com • www.a3zumaia.com

Facebook, Twitter, Instagram icons

Agurtzone Okindegia

Erribera 2 • 943-86 21 52

Aita Mari
JATE ORRIA

679 10 31 67
@Aian de Zigarán, 1
Zumaia
aitamarijatekoa@gmail.com

Facebook, Instagram icons

AIZPURUA

LIBRERÍA
DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 89

AL-ANON

Alkoholikoen sende eta lagunen elkartea
Tel. 650 26 59 63
Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbetetan, 19:00-21:00

ALBERDI
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

606 72 61 88
943-14 32 61

Amara

tel. 943-57 46 51
amamataberna@gmail.com
Oñaga y Gasset kalea 4, Zumaia (Gipuzkoa)

Ane Ibarretxe Hartu Kinka

Arantzabide, 3 behe • Zumaia
943-54 35 70 • 688 73 38 56

GRANDEGA
Jirafas

GRANDEGA Jirafas
Zumaia

OGI-EBEL

ATARI
TABERNA

Pintxo berriak eta elagorre-ago
Arantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69

BOSCH Service
Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa Balaztak, ABS, ESP
Diesel injezioa Mantentze mekanika
Elektrizitatea/Elektronika Motorren mekanika
Puztea Hoste sistemak

Urola plaza 3-6 Tel. 943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bos.com

AXA

943-53 03 97
688 71 26 21
Kantauri 2, behe
aseguruak.zumaia@agencia.axa.es

Bakur
ITZULPEN ETA ARGITAILPEN ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25
20760 Asteasu
tel. 943-14 83 08
bakur@bakur.net

Basodi
albaitaritza

Albaitaria
Itzi Garmendia

Basodi, 7, behe • tel. 943-14 33 10
info@basodi.net
www.basodi.net

Geloa, 11-13, Amurrio, 48-50-51. Autoketa gaitasun eta kudeaketa. Bida
Lentaketa: 606 73 87 87 Eliza eta ena pertsona

BASUSTA
erretegia • asador

José Blázquez

Petxeta Erreteretia, 25 Tel.: 943-84 30 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-84 34 38
asadorbasusta@hotmail.com

EDU
ZUMAIKO OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57

www.eduoptika.com

RPS 18/16



EGOKI
ERLOJUEN DENDA

Erloju eta bitxi denda

E. Garmataga plaza, 6
tel. 943-86 17 87

Hondartza bat, denona



MARIA MAYA MANTEROLA

Iritsi da uda. Egunak luze, iluntzeak epel eta zerua urdin den urtaroa. Izozkiena, bainujantziarena eta eguzkitako kremarena.

Gorputz ilegabeak depilatzen ageri dira telebistan sasoi honetan, azal pikor gabe tenkatu eta dirdiratsuak kremaz estaltzen aldizkarietan, sabel lauak izozki kalorikoak lirainki dastatzen tabernetako iragarki paneletan eta lagun koadrila zoriontsuak iluntze urrekaratan garagardoarekin topa egiten bideoetan.

Urtero bueltan dator uda, baina urtero da berria. Eta lehen arratsalde epelekin batera iritsi da urteroko hondartzako murmurioa ere.

Izan ere, maite dut uda, baina duela egun pare bat ezagun bati entzundakoak korapiloa sortu dit sabelean. "Zer nolako gorputzak ikusten diren hondartzan, aizue". Crossfita erlijio berria den garaiotan, ur ertzean pasieran ikus daitezkeen giharrez eta ipurmasail gogorrez ari zen, noski.

Ez dakit gihartsuak ez zirenak hondartzan ikusi ez dituen, edo ez diren hondartzara joaten. Edozein kasutan, bi hipotesiak dira txarrak. Ez ninduen harritu komentarioak, urtero halakoak entzuten direlako: "Orain arte ez diot nabaritu, baina, aizue, bizilagunari tripa hazi zaio, haurdun egongo ote da? Badu garaia". "Eta zein zuri dagoen hura, ezta? Hanketako zainek errekak dirudite izterretatik behera". "Uretara sartzen ari dena, berriz, asko argaldu da; gehiegi, akaso. Badakizu, udaberrian ekingo zion bikini operazioari, uztaila heltzerako luzitzeko". Batzuk ahoz goran eta zuzenean pertsona horri berari dardo pozoitua botatzerainoko lotsagabeak izatera ausartzen dira, gainera. Koadrilakoaren ahotik, familiarteko batengandik edo beste edonorengandik etor daiteke komentario mingotsa, eta kargu hartzea ere izaten da batzuetan.

Baina egin dezagun ariketa, goazen geure begirada propioak zalantzan jartzera. Ken ditzagun betaurreko epaitzaileak, eta utz diezaigun gorputz ez normatiboekiko hondartzako murmurioa hauspotzeari. Utz diezaigun osasuna eta argaltasuna lotzeari. Arazoa, nonbaiten egotekotan, ez baitago gorputzetan. Kanonetan eta, batik bat, patriarkatua den makinaria erraldoia sostengatzen duten begirada horietan baizik.

Egin dezagun mundu, urtaro eta hondartza bat herrenak, gizenak, titi handidunak, adinekoak, haurrak eta iletsuak eroso sentituko direna. Egin dezagun uda guztiontzako urtaro gozagarria. ■■■

**ARAZOA, EGOTEKOTAN,
EZ BAITAGO
GORPUTZETAN,
BEGIRADA EPAITZAILE
HORIETAN BAIZIK**

"Poza da guretzat horrelako zerbitzua ematea"

TESTUA: INTZA TRULA

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Jessica Gonzalez Da Silvak (Zumaia, 1995) eta Alex Urangak (Zumaia, 1989) beste urtebetez hartuko dute Santiagoko hondartzako kantinaren ardura. Ez da gauza berria; izan ere, hirugarren urtea dute Portutxiki kantinan. Aurreneko urtean pandemiak eragindako murrizketekin egin zuten lan, horrek guztiak zekarrenarekin, baina aurtengo denboraldirako kontzertu, azoka eta emanaldi mordoak prestatu dituzte herritarrentzat.

Ez duzue aurreneko urtea Portutxiki kantinan.

Jessica Gonzalez Da Silva: Hirugarren denboraldia dugu. Askok murgildu gara proiektuan, benetan uste dugulako zerbait polita atera daitekeela gauzak ondo eginez gero. Zumaia herritarrei eta kanpotik datozeinei zerbitzu ona ematea da gure nahia, eta iruditzen zaigu kantina hau bide onetik eramanda, hondartzak bizitasun asko irabazten duela. Hori da lortu nahi duguna: zumaia-arentzat eta kanpotik datozenentzat txoko eroso bat sortu, lasaitasuna eskaini, eta antolatzen ditugun kontzertu eta bestelako egitasmoekin tarte polit bat pasatzeko aukera eman.

Aurreneko urtean COVID-19ak eragindako murrizketekin egin behar izan zenuten lan.

Alex Uranga: Egia esan behar badizut, lehenengo aldi hartan beldur pixka bat izan genuen. Pandemia zela eta ez genekien oso ondo zer gertatuko zen, egun batetik bestera itxi beharko genuen ala ez, eta abar. Hala ere, alde onak eta txarrak izan zituen urte hark: alde batetik, hondartza honen edukiera oso handia denez, inoiz ez zen edukiera mugara iristen. Azkenean, arrazoi hori tarteko, jende gehiagok hartu zuen Santiagoko hondartzara etortzeko ohitura, eta ordutik, askok errepikatzen jarraitzen dute. Bestetik, uda gogorra izan zela gogoratzen dut. Jendeak ezin zuen zutik kontsumitu, dena eserita izan behar zen, eta guk 11 mahai bakarrik edukitzeko baimena geneukan. Oso txikia gelditzen zitzaigun kopuru hori, eta amorr

handia ematen zuen ikusteak zenbat jende gelditzen zen kontsumitu gabe. Horrez gain, kontzertuak egiteko aukera gutxi izan genuen. Hala ere, ikasteko oso urte ona izan zen, eta ordutik asko hobetu dugula esango nuke.

Hondartzan familiarean eguna pasatu eta zerbait jateko eta edateko lekua edukitzeaz gain, kontzertu, azoka eta hainbat emanaldi eskaintzen dituzue. Gazteak erakartzeko estrategia al da?

J.G.: Egia da geroz eta jende gehiago hurbiltzen dela hondartza honetara, baina bai, gure helburuetako bat gazte jendea erakartzea da. Kantina honek asko janzten du hondartza, lehen ez zegoen zerbitzu bat da azken finean, eta horrek ere jendea animatzen du. Hala ere, gu denetarik eskaintzen saiatzen gara ongietorriak senti daitezen bai helduak, bai gazteak, bai haurrak. Ondo pasatzeko eta deskonektatzeko txokoa izatea nahi dugu.

Nolakoa aurreikusten duzue uda?

A.U.: Ez dago inoiz jakiterik. Aurreko urtean sekulako uda izan genuen, eguraldiak asko lagundu zigun eta ia denboraldiko egun guztietan eduki genuen kantina irekita. Esan bezala, gero eta zumaia- gehiago hurbiltzen da hona, eta aurtengoan ere gorakada hori nabaritzea espero dugu. Aurreko urteetako jendea ikusi nahi dugu, eta baita jende berria hartu ere.

Kantina ez da oso handia. Nola moldatzen zarete ematen duzuen zerbitzua emateko?

J.G.: Hasi eta segituan konturatu ginen kantina honetan lana egiteak dituen zailtasunez. Oso txikia da, kamara oso gutxi ditu, eta beraz, hotza daukaguna segituan gastatzen zaigu. Motxean esanda, askotan ezin diogu hondartzak duen eskariari aurre egin, baina etorkizunera begira hori aldatzeko asmoa daukagu. Hala ere, alde onei gehiago begiratzen diegu; oso txoko polita dela uste dugu, etortzen den jendeak errepikatu egiten du, eta horrek asko pozten gaitu. Guk oso gustura egiten dugu bertan lan, karioño handia hartu diogu, eta poza da guretzat zerbitzu hau emateko aukera izatea. ■■■





Uda bero-bero dator

Azken hilabeteotan, energia trantsizioa zein unetan dagoen zentratzeko asmoz, Piztu kooperatibakook prestakuntza eta sentsibilizazio jardunaldi sorta bultzatu dugu. Zumaiaetik aditu asko pasatu da, izan geologo, fisikari, ekonomialari edo filosofo, eta, ñabardurak ñabardura, denak bat etorri dira ideia berean: Lurrak muga biofisikoak ditu, muga horiek gero eta agerikoagoak dira, horietako asko gainditu ditugu eta ohiko energia iturriak ez daude muga horietatik salbuetsita.

Halaber, energia trantsizioa ezinbestekoa da, baina hori ere energia sortzeko sistema berrietarako behar diren lehengaiek mugatutako tarte estuetan garatu beharko da. Adibide bat jartzearen: bateria

elektrikoek litioa behar dute, baina aurreikuspenen arabera, litio erreserbak 2037. urtean (etzi, alegia) gailurrera iritsiko dira; bestalde, zirkuituek kobrea behar dute, eta, meategietan urri denez, zabortezi zaharretan bilatzeko aukera mahai gainean dago. Orduan, trantsizio ekologikoa kimera bat da? Bada, erantzuna baiezkoa da, energia kontsumoa egungo mailan mantentzen bada, behintzat. Zer gertatzen da garraioak behar duenarekin? Zer gertatzen da lehengaiak lurretik

**UDAREKIN BATERA,
ENERGIA KONTSUMOA
URTEKO
MAXIMOETAKO BATERA
IRITSIKO DA**

ateratzeko edo lurraldea zauriz betetzen duten azpiegitura handiak eraikitzeko behar den makineria astunarekin? Oraindik ez dagoela horien energia gosea asetzeko modurik.

Udarekin batera, energia kontsumoa —eta geure barneko kontraesanak— urteko maximoetako batera iritsiko da. Datozen asteotan, hegazkinak, itsasontziak, autoak, trenak... denak beteko dira, gu urrunago eramateko, kontsumo gizarte honek gure ametsetan txertatu dituen lekuetaraino joan gaitezen, ahal den azkarren, ahal den merkeen... Baina inork ez digu frenesi horren B aldea erakutsiko, inork ez digu aipatuko zer-nolako aztarna izugarria utziko duen neurrigabeko kontsumo horrek gure planeta ezin esplotatuago

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



MIREN OSA GALDONA

Bestelako jendartea

Eustaten azken ikerketa batek edozein lagun artetan nahiz konfiantzazko zirkuluetan egon daitekeen susmoa berretsi du: oraindik desberdintasun handiak daude gizon eta emakumeen artean seme-alaben eta menpeko pertsonen zaintzan denbora banatzean, baita etxeko lanetan bizikide bakoitzak eskaintzen duen ordu kopuruan ere. Inkestan parte hartu duten emakumeen %53,1k diote egunean 5 ordu baino gehiago pasatzen dituztela adingabeak zaintzen.

Kopurua ia erdiraino jaisten da gizonezkoetan, %29k baitiote egunean 2 ordu edo gutxiago eskaintzen dizkiola. Datuak ez dira askoz hobeak menpeko pertsonen zaintzaz: emakume okupatuek egunean 2,3 ordu igarotzen dituzte; gizonak, 1,7 ordu. Etxeko lanen banaketari erreparatuta: gizonen % 12,3k 3 ordu edo gehiago ematen ditu lan horietan; emakumeetan, ehunekoa % 26,7koa da.

Alegia, zaintzaren, etxearren, senideen nahiz ingurukoengizatearen zama oraindik ere emakumeengan dago, eta teknologiak nahiz ustezko kontzientzia aldaketak eta inplikazio aktiboak zenbaitzuren ahoak betetzen dituzten arren, esango nuke oraindik asko falta zaigula bestelako jendarte eredu baten parte izateko.

honetan. Adibideak beti dira argigarri: ekainaren hasieran, atmosferaren batez besteko tenperaturak lehen aldiz gainditu du azken hamarkadetan izan duen igoeraren 1.5° C-ko muga; hau da, lehen aldiz gainditu da klima aldaketari buruzko negoziazioetan ezarri zen muga, inork gainditu nahi ez zuena. Aldi berean, ekainaren erdialdera, itsasoko urak Zumaiako kostaldearen parean duen batez besteko tenperatura hilabete osoko batez besteko historikoa baino ia gradu bat handiagoa da. Eta horrelako datuekin bete genezake aldizkari guztia...

Berdin duela ematen du, ordea. Ez dezagula udan berorik pasa! Beteko ditugu etxeak klimatizazio ekipoz gu fresko egoteko, eta konpentsatuko

dugu kontsumo hori betiko konpainia elektriko handiek teiltatueta jarriko dizkiguten eguzki plakekin. Horrela planetak irabazten omen du. Sinesten duzu zuk hori? Guk ez, eta horregatik antolatu gara.

Gure asmoa ez da inola ere inori oporrak zapuztea, baina uste dugu hausnartu beharreko zerbait badela. Bestalde, badakigu ez dela bidezkoa erantzukizun guztia gizabanakoengan jartzea. Izan ere, gehien egin dezaketena, eta egin behar dutena, ataka honen aurrean jarri gaituztenak dira: ezinezkoa dela ondo baino hobeto jakinda ere etengabeko hazkunde ekonomikoaz hitz egiten jarraitzen duten horietan, hain zuzen. Has gaitetzen, bada, behar denari erantzukizunak eskatzen, berandu gabiltza eta.



Leikin
ELECTRONIC
Erribera kalea, 6 20760 Zumai. Tel. 943-86 30 97
ekin@ekin.com www.eekin.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara **MÁSMÓV L**

ERNTÓ
TABERNA

V. Amate, 3 Tel. 943-86 00 45

Garoa

Carlos Oñero - Ainhoa Oñero
Tel. 943-86 21 81
Thomas Agne, s/n
ZUMAI (Gipuzkoa)

GLENCOE
INGLES AKADEMIA
TALDE MURRIZTUAK

Zumbó kalea, 12 behea
Tel. 670 39 17 77
matrikulazioa beharrik!

Ikastegi homologatua
Golden Gate
Institute
hizkuntza eskola

Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com

Gure Txokoa
taberna

Upela plaza, 4
20750 Zumai
Tel. 943 86 09 70

Harvest
English School

...eta udarean ingaterrera ingelese praktikatzen
www.academiaharvest.com

San Joan, 11 bis Tel. 943-86 03 36

ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23

Iriondo optika
Optometria - audio zentroa

Kantauri plaza, 8. Zumai. Tel.: 943 86 04 88
Nagusia, 53. Azkoitia. Tel.: 943-85 19 84

IRUDI OTS

Iruditzen ari zarela zoinu
eta argitapen alokatuak
Hotz eta ludi gintza aretoa
Tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ
ileapaindegia

Analisi kapilarrek eta
tratamendu
personalizatuak

San Telmo 12 Tel. 943-86 07 60

ORRAZTEGI
ZUMAI

943-86 20 83

K&BI
Pintak & Decorazioa, 15
943-11 24 27

Kaithermik S.L.

Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20

JUARISTI
jate txea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Betadi auzategia, 10 Tel. 943-05 05 77

MAIAUR
ZUMAI

Julio Beotibe, 2 • Tel. 943 862 269

"Uste dut momentu perfektua dela"

IÑAKI OSA GOIKOETXEA PUNTISTA

"Berezia da oso, errepikaezina". Hitz horiek erabili zituen Eraman zesta puntako enpresako komunikazio arduradunak Iñaki Osa Goikoetxea (1980, Zumaia) deskribatzeko. Pilotariak bere ibilbidea amaitzeko erabakia hartu duela plazaratzeko eginiko prentsaurrekoan esan zituen hitzok, ekainean.

Testua: **Iosu Alberdi**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Goikoetxeak denboraldi amaieran esango dio agur pilota profesionalari, Winter Series txapelketa amaitzearekin. Halere, une hori iritsi bitarteko partidetan bere onena emateko prest dago.

Goikoetxeak etxean jaso zuen zesta puntarekiko interesa, eta anaiek egin bezala, hark ere kirol hari heldu nahi izan zion. Urratsez urrats, eta batetik bestera eginiko bidaia ugari tarteko, 27 urteko ibilbidea osatzera iritsi da zumaiarra. Bizitza erdia baino gehiago zestari lotuta. Bidean, garaipen kopuru amaigabe bat, eta punta-puntako garaikur ugari; besteak beste, hamahiru aldiz izan da banakako munduko txapeldun, eta beste zortzi aldiz binakakoa. Horrez gain, bost aldiz irabazi du Miamiko (Florida, AEB) koroa hirukoitza ere.

Palmares kasik errepikaezina osatu du puntista zumaiarrak, eta haren jarduna berritzailea izan da zenbait aspektutan. Horren guztiaren errepasoa egin du BALEIKerekin.

Zergatik erabaki duzu zure kirol ibilbideari bukaera orain ematea?

Urteak aurrera doaz. 43 urte egin ditut aurtan. Ez da erraza egun batean esatea: bukatuko dut. Baina, uste dut momentu honetan maila ona ematen ari naizela, eta zesta ere momentu gozo batean dagoela. Bada zerbait horrela agurtzea nire ibilbidea. Uste dut momentu perfektua dela.

Kirol profesionalean, beti ez da erraza izaten norberak jartzea bukaera data ibilbideari. Zuk horretarako aukera izan duzu.

Neuk aukeratu dut, bai. Hemendik aurrera, geratzen zaizkidan azken txapelketak jokatuko ditut, eta horiek bukatzen direnean, jokatzeari

lagako diot. 27 urte eta gero, lesionatu aurretik edo jokoan behera egin baino lehenago uztea garaipen garrantzitsua da.

Garaipen asko, txapel asko. Kosta egiten da motibazioa bilatzea hainbeste urte punta-putan igaro ostean?

Irabazteko motibazioa beti dago hor. Baina, egia da, nire ibilbideko lehen hogeitun urteetan motibazioa irabaztea eta irabaztea izan zela.

Orain, motibazioa da kantxan jokatzu disfrutatzea. Eta txapelak irabazten badira, askoz hobe.

Hau besteen esku uzten da askotan, baina zuk nola definituko zenuke Iñaki Osa Goikoetxea puntista bezala?

Kantxan kolokazio ona eta irismen handia ditut. Indar asko ere izan dut urte askoan, eta teknika ere bai. Pilotari nahiko konpletoa izan naizela uste dut.

Kirolarena urte gutxian asko aldatu den mundua da, besteak beste, prestaketari begira. Nabaritu duzu trantsizio hori?

Lehenengo urteetan, mendira joan, korrika pixka bat egin, eta gauza gutxi gehiago egiten zen. Gaur egun, horiez gain, entrenamendu espezifikoak egiten dira: fisikoak, teknikoak... Aldaketa handia izan da.

Aztera eginda, "itsasoa, eskola edo Italia" izan zenituen aukeran. Nerabea zinen etxetik alde egin zenuenean, baina argi zenuen zure bidea hori zela?

Zalantzarik ez nuen izan. Gurasoei bertigo pixka bat eman zien horrek, baina argi neukan sei hilabeteko proba hori egin behar nuela Italian, eta gero itzuliko nintzela etxera bizimodu normal bat egitera. Baimena eskatu nuen etxean, ea uzten zidaten joaten. 16 urteko mutil koxkor bat ume bat da, baina hain konbentzituta ikusi ninduten, joateko baimena eman zidatela.

Orduan jada pentsatzen zenuen zure etorkizuna zesta puntari lotua egongo zela?

Nahiko nukeen? Bai. Baina, ikusi, ikusi... ez nuen hala ikusten. Gauza bat zen Italiara salto egitea, eta beste bat, ondorengoa: Estatu Batuetara salto egitea. Hor oraindik ez nuen demostratu asko txapelketei dagokionez, baina bai joko aldetik. Beraz, pausoz pauso joan nintzen maila altxatzen.

Gero, aukera eman zidaten AEBetako frontoi batera [Newport, Rhode Island] joateko.

Txapelketa bat jokatu nuen han, eta beste aukera asko sortu zitzaizkidan. Orlandora joatea erabaki nuen, baina gero han gauzak aldatu egin ziren, eta

Miamira aldatu nintzen. Azkenean, hogeitun urte izan ziren kanpoan egindakoak.

AEBetan beste errealitate batekin egin zenuen topo; beste abiadura batekin. Nola egokitu zinen testuinguru berrira?

Nahiko ondo hartu nuen; gustura joaten nintzen frontoira. Beti izan naiz pertsona exigentea neure buruarekin, eta beti hobetu nahi izan dut jokia. Pila bat entrenatzen nuen, ordu asko pasatzen nituen frontoian... Eta ordu asko eginda, bazoaz ikusten asko ari zarela hobetzen, ari zarela frontoiko txoko guztiak ezagutzen. Orduan, ez dago aitzakiarik pilotari ez izateko.

Newport, Orlando eta, azkenean, Miami. Han finkatu zinen. Bertan gogoratzen dituzu zure kirol ibilbideko urte onenak?

Bai, uste du Miamikoak izan zirela onenak. Konfiantza handia nuen kantxa barruan. Iritsi nintzenean, oso pilotari onak zeuden han, eta bertigo pixka bat ere ematen zidan haien aurka jokatzek. Pixkanaka-pixkanaka joan nintzen nire lekua egiten, eta hamahiru urte egin nituen azkenean.

Han zinela, pilotak izandako beherakadaren testigu izan zinen. Nola bizi izan zenuen hura?

Han beherakada garaia bizi izan nuen, bai, eta hemen ere beheraka zihoan iritsi nintzenean. Baina, azken urteetan, gora egin du. Iparraldean beti aritu da jende asko, baina Hegoaldean gutxiago jokatu da. Halere, azken urteetan aldaketa bat eman da, eta ikusten da goraka doala zesta. Une oso polita da.

Zazpi urte igaro dira itzulera hartatik. Nolakoa izan zen egokitzea?

Hogeitun urtez bizi izan nintzen Estatu Batuetan, baina urtero etortzen nintzen hilabete bat edo beste. Berritasuna izan zen, ordea, lehen bakarrik egiten nuela joan-etorri hori, eta orduan emaztearekin eta seme-alabekin etorri nintzela. Ez nekien nola egokituko ginen, eta agian niri kostatu zitzaidan gehien. Hainbeste urte kanpoan egin ostean, eta naizen bezalakoa izanda, hemen lotuago ikusten nintzen. Baina, ohitu gara hemen bizitzera, eta oso pozik gaude Zumaian egoteaz.

Eta, kirol arloan, nolakoa izan zen trantsizioa?

Sei hilabete egin nituen partidarik jokatu gabe. Deskantsua hartu eta dena emateri ekin nion berriz. Kinieletatik partidetarako aldaketa hori nahiko ondo ikasia nuen aurrez ere, eta entrenamendu espezifiko batzuk ere egin nituen egokitzeke.





"AZKEN URTEETAN ALDAKETA BAT EMAN DA, ETA IKUSTEN DA GORAKA DOALA ZESTA. UNE OSO POLITA DA"

" ATZEAN MARKA HANDIRIK EZ BADAGO, KOSTA EGITEN DA AURRERA EGITEA KIROL GUZTIETAN"

"URTE ASKO KANPOAN EGINDA, HEMEN LOTUAGO IKUSTEN NINTZEN, BAINAOSO POZIK BIZI GARA"

Azken urteetan frontoietan gainontzekoengandik bereizi zaituzten elementuak dira zure kaskoa eta zesta. Red Bull bezalako marka handi batek zure aldeko apustua egin du. Zer suposatu zuen horrek zuretzat?

Lehen pilotarietako bat izan nintzen halako zerbait egiten. Egia da marka handiagoak edo txikiagoak daudela, eta niri oso onak tokatu zaizkidala. Bilatu gabe ailegatu dira. Ez dira bertakoak, baina uste dut aldaketa ona izan dela niretzat zein zestarentzat. Kirol guztietan, ez zestan bakarrik, atzean marka handirik ez badago, kosta egiten da aurrera egitea.

Arazorik suposatu zizun horrek lehen unean...

Aldaketa nik ekarri nuen, eta lehen urtean Red Bullen kaskoarekin jokatu nuen arren, bigarrenean izan nuen beto bat. Baina, ordutik aurrera, arazorik gabe jokatu dut.

Aipatu duzu zesta punta gorako bide batean ari dela egun. Nola ikusten duzu kirol horren etorkizuna Euskal Herrian?

Ikusi... ez dut zehazki inon ikusten, baina igartzen dut goranzko joera bat dagoela. Telebistan audientzia onak lortzen ditu, frontoietan ere ondo erantzuten du jendeak... Ez dakit noraino iritsiko den, baina hobera egiteko aukera handiak ditu. Telebistan gehiago ageri da azken urteetan, eta hori da leiho inportanteena. Hori gabe zaila litzateke gorakadarik egotea. Halere, ez dakit gehiago sartzea komeni den ere, jendea aspertzeko arriskua baitago. Balantza orekatzea garrantzitsua da.

Pilotari bezala erretiroa hartuko duzu, baina ez zara zesta mundutik asko aldentuko. Iragarri duzu Eraman enpresako kirol zuzendaria izango zarela datorren denboralditik aurrera. Zer espero duzu etapa berriaz?

Kirol arloko hainbat gauza egitea tokatuko zait, eta helburua da zestari eta kirolariei laguntzea. ■■■

Motzean

- **Gaztetan zenuen erreferente bat?** Juan Ramon Rementeria *Remen*.
- **Frontoi bat?** Gernikakoa (Bizkaia).
- **Kantxan izandako bikotekide bat?** Zaila da aukeratzea; hainbeste bikotekide on izan ditut.
- **Zure ibilbidean ahaztuko ez duzun partida bat?** Ni eta Osa, Alberdi eta Felixen kontra. 2003an edo 2004an izan zen.

Zumaia eta etxebizitza: bizitzeko herri bat, norentzat eta zenbat diruren truke?

Inguruko joera orokorrari jarraiki, azken urteetan etengabe gora egin dute Zumaian etxebizitza erosketaren zein alokairuen prezioek. Fenomeno orokor horri, Zumaia bizi duen turistifikazio prozesua eta bigarren etxebizitza izateko erakargarritasuna gehitu behar zaizkie. Udala prezioen igoera horri mugak jartzeko neurriak hartzen ari da, baina zailtzen ari dira gazte eta ez hain gazte askok etxebizitza bat izateko dituzten aukerak.

Testua: **Jose Castillo.**
Argazkiak: **Arnaitz Rubio**
Aprea.

Munduko tratatu politiko nagusiek jasotzen dute etxebizitza duin eta kalitatezko bat izateko gizaki orok duen eskubidea. Hala jasotzen du Nazio Batuen Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak bere 26. artikuluan. Hala jasotzen dute demokrazia liberal-kapitalistako Estatu gehienek konstituzioek ere, Espainiar Estatuko Konstituzioak barne, zeinak bere 47. artikuluan herritar orori "etxebizitza duin eta egoki" bat izateko eskubidea aitortzen dion. Halaber, eskubide hau betearaztea erakunde politiko publikoei esleitzen badie ere, artikulua hori inolako berme juridikorik gabekoen artean sartzen da. Hau da, inork ezin dezake helegite bat aurkeztu epaile baten aurrean bere etxebizitza eskubidea bete dadin.

Era berean, gizakia izatez abenturazalea izan badaiteke ere, izaki komunitarioa ere bada, eta bere bizitzan zehar sortzen dituen harreman ezberdinen arabera moldatzen du bere bizitokia. Horien artean, askok bere herri edota auzoan hazi eta bizi nahi izaten dute. Baina faktore askok baldintzatzen dute aukera hori askatasunean hartu ahal izatea, etxebizitza eskaintza eta horren kostu ekonomikoa tarteko. Horrela, egungo kezka sozial nagusienetakoa bihurtzen ari da bere etxebizitza utzi behar duten edota lehen etxebizitza bat

izatera igaro ezin dezaketen gazte askoren errealitatea.

Izan ere, etxebizitza politikoki eskubidea bada ere, hitzaurre eta diskurtso potoloetatik aterata, etxebizitza merkatuko beste merkantzia bat gehiago da. Saldu, erosi eta espekulatu egin daiteke. Horregatik, estatistika indize publiko nagusiek etxebizitza ez dute jasotzen kontsumo familiarrerako behar material gisa, kontsumo prezioen indizetik at kokatuz horren prezioa, inbertsio aktibo gisa baizik. Noski, inbertsio aktibo izateak, aurretik diru kopuru bat izatea suposatzen du, gazte askorentzat diru kopuru hori eskuratzea geroz eta zailago bihurtuz. Horrela, 2021. urteko Eusko Jaurlaritzaren azken etxebizitza beharrei eta eskariari buruzko inkestak Euskal Autonomia Erkideagoan (EAE) lehen etxebizitza baten beharra zuten 130.000 biztanle baino gehiago zenbatu zituen. Horietatik, 100.000 inguru 18 eta 44 urte bitarteko biztanleak ziren.


Zumaia ez da arazo honetatik salbu den herria. Azken urteetan etxebizitza eskariak gora egin du, turismoaren etorrerak gora egin duen bezala. Zumaia bizitzeko edota udako bigarren etxebizitza izateko gero eta erakargarriagoa bihurtzen ari den herria bilakatzen ari da. Baina horrek badu bere alde iluna: alokairu eskaintzaren agortzea eta horren prezioen igoera amaigabea zein etxebizitza berrien prezioen igoera. Beraz,

areagotzen ari da jada etxebizitza zutenen eta egun erosi edota alokatu nahi duten herritar horien arteko arrakala.

Jabedunen erregimenari eutsiz

Espainiar Estatuko frankismo amaierako eta ondorengoko erregimen sozialak etxebizitza jabetza izan du oinarri. Espainiar ongizate-estatuaren funtsean dago, zerbitzu publiko eta soldata handiak izatea baino, langile familien egonkortasun ekonomikoa mantenduko zuena etxebizitza jabetza izatea, horrek sortutako errentak familien errentaren zati handi bat suposatuz. Jose Luis Arrese ministro frankistak esaldi famatu batean laburtu zuen: "Jabedunentzako herrialde bat, ez proletarioentzako".


Etxebizitza eraikuntza sektorea Espainiar Estatuan garrantzia handienetako sektore ekonomikoa izan da trantsizio garaitik egunera arte. Etxebizitzaren prezioa artifizialki eta hainbat finantza trikimailuri esker putzen joan zen denboran zehar, 2008ko finantza krisiarekin batera lehertu zen arte. Orduan hasi zen "etxe jabedunen demokrazia" hori kolokan jartzen. Hala ere, oraindik ere, EAEn nagusi den etxe edukitze-erregimen ohikoena jabetzarena da. Eustaten datuen arabera, EAEn 2021ean familien ehuneko 84,5ek etxebizitza jabetzan zuten. Baina,



Erregistratutako kontratu berrien hileko batez besteko alokairu-errentaren bilakaera eta % urte arteko aldakuntza, Zumaia 2016-2022.

azken hamarkadan, jabedunen erregimen hau higatzen joan da motelki, 2011 eta 2021 artean alokairuan zeuden maizterren kopurua ehuneko 5,3 puntu igo baita. Etxebizitza jabeen kopurua ehuneko 1,4 jaitsi da denbora tarte berean.

Etxebizitza erregimenaren aldaketa horrek joera ezberdinak izan ditu eskualdez eskualde. Azken hamarkadan turistifikazio prozesu bat bizi izan duten euskal kostaldeko eskualdeetan nabarmen igo da alokairuan bizi direnen kopurua. EAE osoko alokairu igoera handiena izan duen eskualdea Donostialdeakoa da, ehuneko 8,5 puntuko igoerarekin. Urola Kosta igoera handiena bizi izan duen hirugarren eskualdea da,



Gipuzkoako etxebizitza libreen salerosketen batez besteko prezio osoa, erregistroan inskribatutako hiruhilekoaren arabera eta etxebizitza motari jarraiki ().


alokairuek 6,4 puntuko igoera jasan baitute. Igoera hori kostaldeko herriek bultzatu dute: Zarautzek, Zumaia eta Oriok. Ez soilik alokairu kopuruan, baita horien prezioen igoeran ere; Zumaian, alokairuaren prezioa –2022 amaierako datuei jarraiki–, eskualdeko batez bestekoa baino ehuneko 3,5 puntu altuago kokatu baitzen.

Zumaian etengabea izan da alokairu prezioen igoera, 2016tik 2022ra ehuneko 25,4 puntuko igoera erregistratuz, zenbatutako kontratu berrien hileko batez besteko alokairu-errentaren bilakaera 600 euro inguru izatetik 770 eurotik gora kokatzeraino. Errealitatea hori izanik, Zumaia-ko Iñaki Ostolaza alkateak adierazi du udalaren erantzuna izango dela alokairuak ordaindu ahal izateko dirulaguntzak handitzea eta horien prezioa erregulatzen jarraitzea: "Azken agintaldian alokairu laguntzak bikoizteaz gain, etxebizitza bulegoa zabaltu dugu udaletxean. Etxe hutsak alokairura bultzatzeko, etxebizitza bulegoa etxe hutsen jabeek eskura dituzten programa eta laguntza ezberdinak azaltzeaz arduratuko da. Bestalde, etxebizitza babestuen

promozio berriak adostu ditugu Eusko Jaurlaritzarekin, alokairu publikoari bultzada ematea helburu dutenak".

Madrilgo Parlamentuan onartu berri den Etxebizitza Lege berriak alokairua erregulatzeko beste tresna batzuk ematen ditu. Hala nola, garestitze handia jasan duten zonaldeak "tentsio handiko eremu" izendatzea, bi baldintza betetzen badira: batetik, hipoteken edo alokairuen kostua familien batez besteko errentaren %30 baino handiagoa izatea; eta, bestetik, etxebizitzaren salmenta edo alokairu prezioa gutxienez Kontsumo Prezioen Indizea (KPI) baino hiru puntu gehiago igo izana azken bost urteetan. Udal arduradunek oraindik ere ez dakite aukerarik izango ote duten Zumaia tentsio handiko eremu gisa izendatzeko, baina Ostolazak adierazi duenez, "saiatuko gara hori horrela izaten, tresna berriak behar ditugulako etxebizitza prezioetan eragiteko".

Zentzu horretan, udalari pauso gehiago eskatzen dizkio Zumaia-ko Etxebizitza Asanbladako kide Manu Aizpuruak:



Zumaiaiko etxebizitzak, etxebizitza-motaren arabera.

"Dirulaguntzak ugaritzea, Babes Ofizialeko Etxebizitzen eskaintza ugaritzea sustatzea, etxebizitza turistikoak mugatzea, alokairu sozialak bultzatzea edota etxe hutsei irteera ematea". Hala ere, ez du uste horrekin nahikoa izango denik etxebizitzaren problematikari behin betiko konponbide bat emateko, horiek "konponbide partzialak" baino ez baitira eta ez baitiote arazoari "errotik heltzen". Hala, Aizpuruak udalari eskatu dio "dituen tresna guztiak erabiltzeko".

Turismoaren eraginak

Argi dago Zumaiaik hazkunde handia bizi izan duela jasotako turismoari dagokionez azken hamarkadan. Orokorrean, Gipuzkoako kostaldeko herri guztiek bizi izan dute hazkunde hori eta, 2019an, pandemia hasi aurretiko urtean, bisitari kopuruan eta horiek egindako gastuan errekorra erregistratu zen Gipuzkoan. Gastu turistikoak Gipuzkoako ekonomia osoaren %8 baino gehiago suposatzen du egun, Bizkaian eta Araban duen pisua baino nabarmen gehiago.

Turismoak, ordea, badu bere alde negatiboa, turistifikazio prozesu bat jasaten duten lurraldeek euren ekonomia oso aldakorra den sektore baten berezitasunei lotzeko arriskua baitute. Era berean, enplegu prekarioen zabaltzea, kaleen eta aparkalekuen saturazioa edota ingurugiro naturalaren kaltetzea dakarte. Etxebizitza eskaintzan eta prezioen bilakaeran ere eragin nabarmena du turismoak. Fenomeno honetan, aipagarria da etxebizitza turistikoaren eragina. Izan ere, Airbnb bezalako plataforma digitalen bidez, asko erraztu da etxebizitza pribatuak merkatu turistikora aterata eta ostatu gisa eskaintzeko aukera. Horrela, hiri eta herrietako zentroetako alokairu eta salmenta prezioak igo egin dira, eta hedatu egin da bertako biztanleak auzo horietatik periferiara edota inguruko herrietara kanporatzeko joera.

Europako eta Euskal Herriko hiriburuetan Airbnb enpresak kudeaturiko pisuak errealtate turistiko bihurtu dira, jabeen beren pisua denbora luzeko alokairu ohikoan baino errentagarritasun

tasa aski handiagoak eskaintzen baitizkio plataformak bultzatzen duen denbora laburreko alokairu turistikoak. Ian Brossat-ek –Parisko alkateorde izandakoa etxebizitza sailean– ondorioztatu zuen Frantziako hiriburuan jabeek Airbnb bidez beren etxebizitza alokatuz gero, urtebeteen lau aldiz irabazi gehiago lortzen zutela denbora luzeko ohiko alokairuarekin alderatuta. Zumaia ere iritsi da fenomeno hori, 44 etxebizitza turistiko baitaude, eta uda sasoian horien prezioa, kasurik merkeenean, 80 euro inguruan kokatzen baita gaua igarotzeagatik.

Zumaia etxebizitza turistikoek etxebizitza parkearen ehuneko 0,93 suposatzen dute. Baina, Airbnb eta tankerako plataformek etxebizitza turistiko ilegalen ugartzea ekarri dute, erregistroan halako zerbitzurik eskaintzeko izen emanda ez dauden baina plataformetan etxebizitza turistiko gisa eskaintzen diren horien. Iñaki Ostolaza alkateak adierazi du jakin badakitela "lizentziarik gabeko kasuak" daudela herrian, baina horri aurre egiteko Eusko Jaurlaritzatik ekin behar dela, "Udalak ezin baitu Turismo Legeak araututako alor batean zigorrik ezarri". Bai, ordea, horien ugartzeari mugak jarri, Zumaia etxebizitza planaren oinarrietako bat" izango dena, Ostolazaren hitzetan.

Hala ere, Aizpuruak adierazten duenez, Etxebizitza Asanbladak egindako jarraipen eta salaketa kanpaina, pegatinak eta pintaketak eginez etxebizitza turistikoak "markatzeko", erabakigarria izan zen udalak muga hori legez arautzeko. "Hurrengo agintaldian gurekin eta orokorrean zumaia guztiekin problematika honen inguruan hitz egiteko prest egoteko eskatzen diegu, eta oraindik konpondu ez den problematika honi irteera posible ezberdinak bilatzea", gehitu du Aizpuruak.

Bigarren etxebizitzak

Alokairuaren prezioarekin gertatu bezala, etxebizitza berri zein erabilien eskaintza geroz eta garestiagoa da Zumaian. Gipuzkoako joera gorakorri jarraiki, Zumaia etxebizitzaren salmenta prezio orokorra 250.000 eurotik gora kokatzen da jada. Adibidez, *Idealista.com* atarian –higiezinen salerosketarako agentzia erabiliena egun–, Zumaian eros daitekeen etxebizitza merkeena 150.000 euroko 60 metro kuadroko behe solairuko pisu bat da. Gainerakoak, prezio horretatik nabarmen garestiago eskaintzen dira.


Real Advisor webguneak, etxebizitza merkatuaren azterketak egiten dituen agentziak, Zumaian merkatuan dauden batez besteko etxebizitzaren prezioa ia 300.000 eurotan kokatzen du. Bestalde, Fotocasa agentziak egindako lurralde azterketan, Zumaia merkatu "bero" gisa izendatzen dute. Hau da, agentzia horrek etxebizitzaren eskari ugari eta eskaintza nahiko urria eta garestia duen herri gisa definitzen du Zumaia.

Udalak onartzen du egoera hori, eta prezioen gorakadaren arrazoietakoa bat gaitasun ekonomiko altuagoa duten kanpoko biztanleek etxeak erostea dela uste du. "Gipuzkoa barnealdeko herri batzuk biztanleriari eutsi ezinda dabiltzan bitartean, kostaldekoak haziz doaz, eta horrek etxebizitzaren, bai jabetzan bai alokairuan, eskaintza eta eskariaren arteko desoreka gehigarri bat dakar; izan ere, zumaia batek ezin badu Zumaian eskaintzen den etxebizitza bat erosi edo alokatu, kostaldera bizitzera datozenek bete dezakete leku hori", aitortu du Ostolazak.

Datuak argiak dira: Gipuzkoan lehen etxebizitza gisa erabiltzen ez diren horien kopurua etxebizitza guztien ehuneko 6,1ean kokatzen den bitartean, Zumaian batez besteko hori etxebizitza guztien ehuneko 18 inguruan kokatzen da. Hau da, Gipuzkoako batez bestekoa hirukoizten du Zumaia. Hori da merkatuaren berotze faktore

ETXEBIZITZA TURISTIKOAK ETXEBIZITZA PARKEAREN EHUNeko 0,93 DIRA ZUMAIA

FOTOCASA AGENTZIAREN AZTERKETAN ZUMAIA MERKATU "BERO" GISA IZENDATUTA DAGO



Zumaiaiko ostatu turistiko motak.

nagusietako bat, eta egun turismoak baino eragin handiagoa duen faktoretzat adierazten du bai udalak, bai Etxebizitza Asanbladak.

Zumaia leku erakargarria bihurtu da errenta ertain-altuko barnealdeko eta Euskal Herrietik kanpoko jende ugarirentzat bai bertara bizitzera joateko, bai udara igarotzeko bigarren etxebizitza bat izateko helmuga gisa. Bitartean, Eustaten errenta datuen arabera, zumaiaarren batez besteko errenta erabilgarria 2009tik hona geldialdi egoeran dago, ehuneko 1,1 puntu baino ez baita igo. Joera orokorra da hori, hots, soldaten geldotzea, bizitza kostuak gora egiten duen bitartean.

Horri aurre egiteko udalak eskaintzen dituen irtenbideak eskaintza handitzeko politikak bultzatzean eta gazteen aurrezte ahalmena handitzean oinarritzen dira. Ostolazaren hitzetan, "eman beharreko erantzunak ere faktore ezberdinetan eragiteko gaitasuna izan beharko du, eskaintza handitzeko, adibidez, etxebizitza babestu promozio berriak bultzatu, erabilera turistikorako etxebizitzaren erregulazioa eta etxe hutsen jabeekin lanketa burutzea". Bestetik, "alokairurako dirulaguntzak eta emantzipazioa errazteko prezio mugatuko alokairu publikorako etxebizitza berriak eskaintzea".

Baina, etxebizitzaren prezioari azken gorako bulkada emateko faktorea udaletik urrun dagoen

botere-gune batetik dator. Azken urtean Europako Banku Zentralak burututako interes tipoen igoera etengabeak diruaren prezioa garestitzea ekarri du. Horri aurre egiteko banketxe gehienak euren hipoteken prezioa igotzen ari dira, euribor gisa ezagutzen dena igoz. Beraz, jada hipoteka bat dutenek, batez ere tipo aldagarrian dutenek, euren hilabeteko kuota nabarmen igotzen ikusi dute. Horrek, noski, etxebizitza jabetzan ez duten horiei erosteko gaitasuna zailtzen die, bankuek hipoteka emateko baldintzak gogortu baitituzte.

Etokizun zaila

Merkatu faktore horiei begira etorkizuneko joera batzuk aurreikus daitezke, etxebizitza merkatuaren logikaren barruan kokatzen den merkantzia baita, eta kanpoan zein herrian bertan errenta maila ertain-altuko klase egoera dutenentzat, eta baliteke inbertsio enpresa batzuentzat ere, Zumaia etxebizitzan inbertitzeko herri erakargarri izaten jarraituko du. Horrela, klase eta belaunaldi haustura bat emateko arriskua dago. Orain arte hori saihestu bada, zumaia ugarik euren seme-alabei oinordetzan etxebizitza bat uzteko gaitasuna izan dutelako izan da. Baina, etorkizunera begira, eskaintza garestitzen segitzen bada eta kanpoko eskaria ez bada urritzen, baliteke errenta baxueneko zumaia askok herriatik kanpo bilatu behar izatea etxebizitza merkeago bat.

Gainera, hori erregulatzeko Udalak dituen eskumenak mugatuak dira, ezin baitu merkatu logikan guztiz esku-hartu. Horrela aitortu du Ostolazak berak: "Etxebizitza eskubidea bermatu beharrekoa da, baina egun indarrean dagoen merkatu egituren barruan eta udalak dituen eskumen mugatuekin, hori erabat bermatzea ezinezkoa da". Etxebizitza larrialdi egoera saihestu bada ere, etorkizun labur-ertainean Zumaia ez da gentrifikazio eta populazioaren kanporatze logikak gailentzetik salbu.

GIZONEZKOAK

KAEI LIGA

Arraunlaria	Adina	Urteak klubean	Jaioterria
Unax Aizpuru	18	2	Errezil
Xabier Altzibar	29	9	Zumaia
Iñaki Aristi	28	10	Zumaia
Altor Aristi	24	8	Zumaia
Iñaki Arizmendi	23	7	Azpeitia
Endika Arregi	23	3	Azpeitia
Imanol Etxaniz	22	11	Azpeitia
Unai Etxeberria	34	1	Orio
Iñaki Etxeberria	21	2	Azpeitia
Mikel Ezama	17	2	Azpeitia
Jon Gaztañazpi	41	1	Orio
Ibon Goenaga	23	12	Azpeitia
Ander Iriondo	24	13	Zumaia
Jakes Larrañaga	18	2	Azkoitia
Eñaut Larrañaga	27	9	Azkoitia
Joseba Ostolaza	50	2	Zarautz
Eneko Unanue	26	9	Zumaia
Manex Unanue	20	3	Azkoitia
Urko Unanue	19	3	Azkoitia

Entrenatzailea Unai Etxeberria

EMAKUMEZKOAK

ETE LIGA

Arraunlaria	Adina	Urteak klubean	Jaioterria
Helena Albizu	52	4	Zumaia
Laia Aranbarri	18	2	Azkoitia
Jule Egiguren	23	5	-
Nahikari Galarraga	18	2	Errezil
Miriam Garagartza	18	2	Azpeitia
Miren Terese Garrastazu	44	2	Getaria
Leire Ibar	19	3	Azpeitia
Argia Ibar	18	2	Getaria
Amane Jimenez	18	3	Azpeitia
Sara Osa	16	3	Deba
Amaia Otamendi	22	1	Tolosa
Ainhoa Segurola	18	2	Azpeitia
Aintzane Urbieta	31	4	Zumaia

Entrenatzailea Jose Enrike Manterola

BABESLEAK



ARRAUN DENBORALDIA 2023



ESTROPADEN EGUTEGIA

UZTAILA

Eguna	Estropada
9	Zumaiko Bandera
15	Pedreñako Bandera
16	Portugaleteko Bandera
22	Sestaoko Bandera
	Plentziko Bandera
23	Astilleroko Bandera
29	Camargoko Bandera

Herria	Lehiaketa
Zumaia	ETE/KAE1
Pedreña	KAE1
Portugalete	ETE
Sestao	ETE
Plentzia	KAE1
Astillero	ETE
Camargo	KAE1

ABUZTUA

Eguna	Estropada
5	Ondarroako Bandera
6	Hondarribiko Bandera
12	Pasaiaiko Bandera
15	Castro Urdiales Bandera
19	Zarauzko Bandera
20	Bilboko Bandera

Herria	Lehiaketa
Ondarroa	ETE
Hondarribia	KAE1
Pasaia	ETE/KAE1
Castro Urdiales	KAE1
Zarauz	ETE/KAE1
Bilbo	ETE/KAE1

IRAILA

Eguna	Estropada
16	Play-off I
17	Play-off II

Herria	Lehiaketa
Bermeo	KAE1
Portugalete	KAE1

KONTXAKO BANDERA

Eguna	Estropada
Abuztuak 31	Sailkapena
Irailak 3	1. jardunaldia
Irailak 10	2. jardunaldia

Herria	Lehiaketa
Donostia	TKE/Euskotren
Donostia	TKE/Euskotren
Donostia	TKE/Euskotren

TELMO DEUNI



Garaian garaikoa



MAITANE ELDUAIEN (GUKA ESTRATEGIAREN KOORDINATZAILEA)



Topiko bat hemen: garaiak aldatu egiten dira. Komunikazio arloan ere ezin esan dezakegu zaharrak berri direnik. Garai bakoitzak bere izaera du, eta proiektu bakoitzak bere aldia. Teknologia berriek eta Internetek urte gutxiren bueltan hankaz gora jarri dute komunikazio prozesuen paradigma. Komunikatzeko molde berriak sortu dira, eta komunikabideei molde horietara egokitu besterik ez zaie geratzen.

Erronka berriei aurre egiteko xedearekin, Urolako Komunikazio Taldea (UKT) sortu genuen, 2019an. Azkoitiko Maxixatzen, Azpeitiko Uztarria, Zumaiako Baleike, Orío-Aiako Karkara, Zarauzko Hitza, Urola Kostako Hitza eta Erlo telebista batu ginen UKTra. Irabazi asmorik gabeko kooperatiba da gurea, komunikazio proiektu bat, tokikotasunari erantzungo dion egitura bat, lantalde bakarrean bilduta, aurrekontu bakarrekin eta xede berberarekin: euskarazko tokiko hedabide onenak eskaintzea herritarrei.

Bost urteren ondoren, urte berriarekin batera, jauzi garrantzitsua emango dugu: GUKA markaren azpian bilduko gara kooperatibako hedabide guztiak. GUKA azken hiru urteetan egindako hausnarketa prozesuaren emaitza da. GUKA estrategia marraztu dugu, kalitatezko edukia ipar direla.

Tokikotasunari erantzun nahi dion marka komun bat da GUKA, produktu zehatz bati baino,

proiektuari berari indarra eman nahi diona. Orain artean bezalaxe, hedabideak tokikoa izaten jarraituko du, aldizkaria eta .eus webgunea ez dira desagertuko. Beroketa lanak hasi ditugu, eta horregatik ikusten hasita zaudete GUKA izena gure euskarrietan. Baina jauzia marka kontua baino haratago doa: eskaintza bera berritzera goaz, bazkideei ahalik eta zerbitzu onena emateko asmoz.

Bazkideak eta zerbitzua. Horretan nahi dugu pausatu, arnasa hartu eta sakondu, komunitatea baita honi guztiari zentzua ematen diona, gure sorreraren eta izatearen muinetako bat. Komunikabideek daukaten desafio handienetako baten aurrean gaude, ordea. Gure irakurleak gero eta digitalagoak dira; urtetik urtera, handitzen doa gure atari digitalak bisitatzen dituzten irakurleen kopurua. Horri erantzuteko, 30 langiletik gorako lantaldea daukagu, egunero, gurean ahalik eta informazio eguneratuen emateko, euskaraz. Komunitatea indartzearekin batera, bazkideetza digitalari ere heldu beharrean gaude, gure atariak doan direlako, baina ez debalde.

Zero kilometroko komunikabideak dira UKT osatzen dutenak, tokioak, gertutik eta bertatik kontaktzen ditugu herriko gertakariak, eta, nekazarien moduan, garaian garaiko produktuak ere behar direla uste dugu, kalitatezkoak, uztak onak izan daitezen. Horretara dator, hain zuzen ere, GUKA estrategia. ■



Testua: Aiora Larrañaga Solaberrieta.
Argazkiak: Arnaitz Rubio Aprea.



NORBERAREN GORPUTZAZ HARRO LODIFOBIA JOMUGAN

Uda garaia iritsi da. Gizarteak ezartzen duen edertasun ereduak indarra hartzen du urte sasoi horretan, egiturazkoa den lodifobiaren eragina inoiz baino agerikoago bihurtuz. Lodifobiak nola eragiten duen ezagutzeko, eskualdeko hainbat herritarren testigantzak bildu ditu GUKAk. Horiek argi dute: "Ez dira kasu isolatuak, jende askok bizi ditu halakoak".

Martxoaren 4a Lodifobiaren Aurkako Eguna izendatu zuten osasungintzako hainbat profesionalak eta lodifobiaren aurkako aktibistek. Berez, Obesitatearen Aurkako Eguna bada ere, manifestuarekin salatu zuten edertasun ereduak eta horiek lortzeko dietaren kulturak gizartean "kaltea" eragiten dutela, eta gorputz masaren indizearen aitazkian, gorputz ereduak "patologizatu" egiten dela. Izan ere, adierazle horrek pertsonaren garaiera eta pisua hartzen ditu kontutan, hezur eta gihar masa aintzat hartu gabe: 19 eta 25 arteko Gorputz Masaren Indizea (GMI) dutenek izango lukete pisu egokia; 25-29,9 artekoek gehiegizko pisua; eta 30etik gorakoek obesitatea. Horra hor gorputz normala edo lodia izatearen arteko muga. Eustatek gaiak argitaratutako azken datuen arabera, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan herritarren %12,5k du obesitatea eta %33,5k gehiegizko pisua; beraz, herritarren %46 bere pisutik gora legoke. Horren aurrean, lodifobiaren aurkako aktibistek osasuna zenbaki hutsetatik haratago doala aldarrikatzen dute.

Mugimendu feminista aspaldi hasi zen lodifobiak gizartean, eta bereziki emakumeengan, zuen eragina aztertzen, eta gaiak duen garrantzia azpimarratu du Miriam Garcia Etxeberria Orioko Pertzetik elkarte feministako kide eta Emakumeen Etxeko arduradunak. "Pertsonak lodiak izateagatik jasotzen duten bazterkeria eta gorrotoa da definizioz lodifobia, baina askoz haratago doala esango nuke. Zapalkuntza sistema bat da, kanon estetiko oso markatu batetik ateratzen den edonoren aurka egiten duena. Argal egotea osasunarekin lotzen da; kontrakoa, berriz, gaixo egotearekin. Pertsona lodia bazara, izaera alferrarekin eta utziarekin lotuko zaituzte, kontrolik ez duen pertsona batekin".



Hasiera batean pentsa daiteke lodifobiak pertsona lodiei "iseka egitea" duela oinarrian, baina hori baino askoz "sakonagoa" dela argi du Garciak: "Eraso zuzenez gain, beste modu askotara bizi dezake lodifobia pertsona batek. Osasungintzan, esaterako, edozein arazoren aurrean, oso ohikoa da medikuek jatorria loditasunean bilatzea, benetako arazoan sakondu gabe. Horrez gain, autozaintza agindua ez betetzeagatik epai moralak jasotzen dituzte, baina kirola eginez gero ere, begiradak, txutxu-mutxuak eta isekak agertzen dira. Bizitzako arlo guztietan dago lodifobia: lan eremuan, harreman sexual nahiz afektiboetan, kulturen... Lodia bazara, bereizkeriaz tratatuko zaituzte lan esparruetan, eta zer esanik ez ligatzeko orduan; pertsona lodiak merkatutik kanpo daude".

Gorputz eredu normatiboa izatearen presioa era batera edo bestera gizarte osoak jasaten duela azaldu du Emakumeen Etxeko arduradunak. "XXI. mendea irudiaren, mugikorraren, sare sozialen eta *selfiaren* garaia da, eta, testuinguru horretan, gorputz lodia gorputz okerra da. Baina pertsona argal batek ere sufrituko du, presio handia izango baitu argal jarraitzeko, gorputza mantentzeko, kirola egiteko. Beldur ikaragarria diogu pisua hartzeari, horrek argaltasun proiektuan porrot egin dugula esan nahi duelako. Dietaren kulturen bizi gara, eta horrek eragin ditzaieke elikadura nahasmenduak". Presio estetiko horrek emakumeei bereziki eragiten diela uste du, horiek beren bizitzak itxuraren inguruan eraikitze sozialetan izan direlako. "Itxurak erabakiko du gure estatus soziala, eta horrek gure egunerokoan eragin egingo digu. Adibidez, kanpoko begien arabera itxura zaintzen ez duen emakume batek egotera berean dagoen gizon batek baino zailtasun handiagoak izango ditu lan munduan". Garciaren arabera, argaltasunak "zoriontasuna" dakarrela ere saldu du sistemak. "Perfekzio hori, noski, ez da eskuragarria, baina bizi osoa pasatuko dugu hori eskuratu nahian. Azken finean, sistema patriarkalak argaltasuna bezalako promesa jasanezinak garatu ditu gure gorputzak kontrolatzeko".

Egoeraren aurrean, Garciak dio "oso beharrezkoa" dela lodifobiaz hitz egitea, baita aktibismoa ere. "Pertsona lodien aurkako diskriminazioa dagoela salatu egin behar da, eta gure errealtatearen analisi kritiko bat egin". Horrez gain, "diskurtso teorikoetatik irten eta gorputzera etortzea" ere oso beharrezkoa dela deritza. "Bizitako lodifobiaz hitz egin behar dugu, osatzeko eta elkar babesteko. Askotan, oso bakarrik sentitzen gara gai horren inguruan, inguruan ditugun lagunek ere esperientzia oso antzekoak bizi izan dituztela konturatzen garen arte. Esperientzia horiek elkarbanatzea oso sendagarria izan daiteke".

Eskatu gabeko aholkuak

Jon Alkain (Orio, 1998) eta Andoni Uranga (Orio, 1998) oriotarrak oso kontziente dira inguruan bizi duten lodifobiaz. Bi gazteek umorea erabiliz eman dituzte azalpenak, baina gaiak asko hausnartutakoak direla nabari da segituan. "Nik txikitatik izan dut handia nintzelako desberdina izatearen sentipena. Zenbat aldiz esan ote zieten medikuek gurasoei: 'Handiegia dator'". Lodia izatearen estigma horrek haurtzaroan eta nerabezaroan "markatu" egin zuen Alkain eta, azkenean, 17 urterekin, elikadura portaeraren nahasmendua izan zuen: sei hilabetetan 40 kilo



Jon Alkain eta Andoni Uranga. ARNAITZ RUBIO APREA

galdu zituen. "Hezurretan nengoen: 1,76 metro neurtzen nuen eta 64 kilo pisatu. Ikaragarria da, jendeak oso guapo eta eder nengoela esaten baitzidan, nahiz eta ondo ez egon". Horregatik, Alkainek argi du: "Gizarte honek onartzen zaitu itxura jakin bat baldin baduzu, baina edertasun eredu horretatik ateratzen baldin bazara, zaintzeko eta kirola egiteko esaten dizu etengabe, orain arte zaindu izan ez bazina bezala".

Gizarteko lelo horiek etengabe errepikatzen direla uste du Urangak ere, gizona izateari konnotazio edo esanahi "negatiboa" emanez. "Jendeak ohitura handia du lodi daudenei aholkuak emateko, bere osasunaren 'hobe beharrez' ari direla esanez, noski: 'on egingo dizu mendira ibiltzera joateak', 'jan itzazu karbohidrato gutxiago', 'fruta eta barazki gehiago izan behar ditu zure elikadurak', eta nola ez, 'kafearekin azukre beltza edo sakarina?'... Osasun fisikoa jartzen da aitzakia gisa, baina zer gertatzen da buruko osasunarekin?", galdetu du Urangak. "Akaso erretzen duenari etengabe esaten al zaio mendira joateko aire garbia arnastera, edo alkohola egunero edaten duenari errepikatzen al zaio ura edateko, alkohola gibelarentzat kaltegarria delako?".

Hala, bi gazteek uste dute presio sozial horrek "autoestimazio arazoak eta norberaren auto pertzepzio zeharo okerra" dakartzala: "Jasaten duzun presioari aurre egiteko, desio duzun bezala argaltzen zarenean ere ez zara ondo ikusten, sekula ez da nahikoa, barru-barruan geratzen zaizulako urteetan errepikatu dizuten leloa". Hain zuzen ere, gizartearengandik jasaten den presioaz "oso gutxi hitz egiten" dela deritzo Urangak. "Norberak darama zama, inorekin partekatu gabe. Norbere gorputzaz lotsatuta bizi da jende asko; uste baino ohikoagoa da, gai

"Pertsona lodien aurkako diskriminazioa dagoela salatu egin behar da"

"Garen bezala izatearen erruduntasun sentimenduak gizarteak sortu ditu"

nera". Pasarte bat kontatu du anekdota gisa: "Kuadrillan inauteritako mozorroa erostera joan eta aukeraketa egitean, neurri estandarren barruan dauden horiek normalean ez dute pentsatu ere egiten beraiei primeran geratzen zaien neurri hori lodiei ez zaiela kabituko. Mozorroa aukeratzen duten bitartean gizona atzean dago dardarka, sartuko al zaion pentsatzen". Konfiantzazko inguru batean, lagun artean egon arren, "lotsagatik" gertatzen zaiena oso gutxi azaleratzen dutela uste du oriotarrak: "Zaila da araututakotik kanpo zaudela aitortzea, sistema argalen neurrira egina baitago".

Zentzu horretan, Alkainen eta Urangaren ustez, lodifobia lantzeko lantegiak "oso baliagarriak" dira horrelako bizipenak edo antzekoak jende askok izan dituela jabetzeko; izan ere, haiek diotenez, ez dira kasu "isolatuak", eta horiei kolektibo gisa egin behar zaie aurre. "Garen bezalakoa izateagatik ditugun errudun sentimenduak gizarteak sortu dizkigu, sistemak ezartzen dituen arauen eta ereduaren bidez. Gaiaz jendearekin hitz egitean, askok garrantzia kentzen diote, eta, beste batzuek, berriz, gizarteari kasurik ez egiteko esaten dizute, baina era berean, konturatu gabe, beraiek ere erreproduzitu egiten dituzte jarrera lodifobikoak".

Bi gazteek sentitu dute lodi izate hutsak batzuei "molestatu" egiten diela ere. "Pertsona lodi bat pasatzen denean, jendeak uste du hari buruzko iritzia emateko eskubidea duela, berriz ere loditasun hori osasunarentzat kaltegarria dela aitzakia hartuta, noski. Askotan gertatzen da parrandara atera eta kuadrillaren baten aurretik pasatzean 'gordo', 'potolo' edo horrelakoren bat deitzea ere". Argi dute ezauzgarri fisiko hori irain moduan erabiltzeak "pertsona lodiak estigmatizatu" egiten dituela. "Horrek eragin zuzena du pertsona horiek ezezagunen aurrean hartzen duten jarreraren, diren bezalakoa izateagatik baztertuak edo irainduak izateko beldurra sortzen dielako. Eta, berriro diogu: ez dira kasu isolatuak, jende askok bizi ditu halakoak".

Aniztasunari balioa

Fama Thiam (Dakar, 1984) senegaldarra da, eta 12 urte zituenean utzi zuen jaioterria, Almerian (Espainia) bizi ziren gurasoekin elkartzeko. Europara iritsi zenean harridura eragin zion faktoreetako bat izan zen gizarteak pertsona lodiekiko zuen jarrera "ezkorra". Hala azaldu du: "Lodifobia arrazakeria bezala da. Zenbaitek esan dezakete gizartea ez dela arrazista, baina beltza denak etengabe sufritzen du. Gauza bera gertatzen da lodifobiarekin ere. Batzuei irudituko zaie lodia izateagatik ez dela inor baztertzen, baina gizona dagoenak badaki zer-nolako begiradak, komentarioak, jarrerak, bazterketak eta irainak pairatzen dituen". Hain zuzen ere, Thiamek uste du lodifobiarik ez dagoen herrialde batetik iritsita, "are nabarmenagoa" dela bazterketa. "Senegalen pertsona handiak ederrak direla sinesten du gizarteak, eta oso eroso sentitzen dira beren gorpuzkerarekin. Eremu publikoan, hainbat arlotan ikus daitezke emakume eta gizon handiak erreferente gisa: komunikabideetan, musikan, politikagintzan, enpresa munduan... Gorpuzkerak ez du baldintzatzen pertsona horrek lor dezakeen arrakasta, ez dagoelako horren gaineko aurreiritzirik, ezta gorpuzkeraren



Fama Thiam. ARNAITZ RUBIO APREA

arabera eraikitako hierarkiarik ere". European, aldiz, pertsona lodiak "seinalatuta eta epaituta sentitzea" ohiko dela deritzo. "Has gaitzen kontatzen zenbat emakume edo gizon lodi dauden eszena publikoan: oso gutxi. Kasualitatea al da? Ez". Thiamek uste du eremu publikoan "oso argi" ikusten dela pertsona lodien bazterketa. "Hemen loditasuna utzikariarekin lotzen da, eta horregatik ez da eredu gisa aurkezten".

Pertsona lodiei egiten zaien presioari aurre egiteko, Thiamentzat garrantzitsua izan da bere jaioterriko errealitatea ezagutzea. "Ez dut gezurrik esango; gaztea nintzenean, institutuan sufritu nuen bazterketa beltza eta gizena izateagatik, eta nire seme-alabek ere bizi izan dituzte antzeko egoerak. Hala ere, beste erreferente batzuk izateak asko lagundu izan dit neure buruarengan sinesten, argi nuelako zer-nolako emakumea izan nahi nuen".

Aian bizi den senegaldarrak askotan "penaz" bizi ditu Euskal Herriko pertsona lodi askok txiki-txikitatit dituzten konplexuak. "Haurrei txikitatit errepikatzen zaie lodiak daudela, eta errepikatuz eta errepikatuz, kalte handia sortzen die autoestimuan, zerbait oker egin dutela pentsatzen baitute. Pertsona horiek markatuta bizi dira heldutzen direnean ere. Horregatik, benetako gizarte inklusiboa nahi baldin badugu, oso garrantzitsua da lodifobiaz jabetzea eta horri aurre egitea". Prozesu horretan, lodiak dauden pertsonak "diren bezalakoak izateagatik harro" sentitzea ezinbestekoa dela uste du Thiamek. "Gainontzekoek baztertu ez gaitzaten, geure buruari balioa eman behar diogu, gizarteak ezarri nahi dizkigun konplexu guztiak alde batera utziz". Berak, esaterako, ozen aldarrikatzen du ez dela ezkututzen. "Ez ditut arropa zabalak janzten arretarik ez emateko. Arropa estuak janzten ditut, nire



Ana Bringas.

ARNAITZ RUBIO APREA

gorputzaz harro nagoelako eta ez dudala ezkutu beharrik uste dudalako". Izan ere, Thiamen iritziz, pertsona guztiak molde berekoak balira, "oso aspergarria" izango litzateke gizartea. "Aniztasunari zentzu guztietan eman behar diogu balioa".

Gorputzarekin adiskidetzea helburu

Antzekoa da Ana Bringas (Zumaia, 1984) zumaia-rraren testigantza ere. "Handia" izateagatik begirada askoren jomuga izan dela sentitu izan du beti. "Ez naiz sekula estandarretan sartu eta zenbait unetan horregatik baztertua izan naizela uste dut, baina nire izateko moduarekin horri aurre egiten saiatu naiz beti. Neure buruarekiko izan dudana hautematean ere kalte egin didate jendearen iritziek, komentarioek edo begiradek", aitortu du. Bringasi irudiaren eta modaren mundua gustatu izan zaio betidanik, baina badaki arlo horretan ez duela lan gehiago egin bere gorpuzkeragatik. "Saiatu banaiz ere, arropa kate handiek sekula ez naute kontratatu beren dendetan saltzaile lanetan aritzeko, nahiz eta langile bila ibili eta nik lan hori betetzeko eskatzen zituzten baldintza guztiak bete".

Eredu horri aurre egin nahian, Bringasek arropa denda bat zabaldu zuen Zumaian. "Emakume askori ez zaie arropa erostera joatea gustatzen ohiko dendetan beren neurriko arropa ez dutelako aurkitzen, eta hori oso frustragarria da". Modaren industriak egiten duen presio hori bere azalean bizi izan du zumaia-rrak: "Beti gustatu izan zait arroparen bidez nire nortasuna adieraztea, eta oztopo asko izan ditut horretarako, nire neurriko arroparik ez nuelako aurkitzen ohiko dendetan. Garai batean gizonezkoen prakak ere erosi behar izaten nituen. Takoidun zapatak janzten nituen, gizonezkoen prakekin".

Jakin badaki, ordea, berea ez dela kasu isolatua, neska gazte eta emakume askok sufritzen dutela horregatik. "Nire dendara etortzen zen 12-13 urteko neska bat bere amarekin. Gogoan dut lehen aldiz lotsatuta etorri zela. Amak esan zidan praka estu batzuk nahi zituela, bere lagunek moda kate handietan erosten zituztenak bezalakoak. Neska ederra zen, baina konplexu handia zuen bere gorpuzkerarekin. Oso pozik jarri zen galtza batzuk sartu zitzaizkiolako, eta amak aitortu zidan ez zuela sekula horren zoriontsu ikusi. Ordutik dendara irribarretsu etorri izan zen; bere buruarekiko segurtasun handiagoarekin begiratzen zituen arropak eta lasaitasunez aukeratzen zuen nahi zuena". Arazo hori bizi izan ez duenari "garrantzirik gabeko anekdota" irudituko zaiola uste duen arren, arropa erosi nahi den bakoitzean "arau-tutakotik at sentitzea oso gogorra" dela uste du Bringasek. "Izan ere, horrek uneoro sentiarazten dizu ez zarela izan behar zenukeen bezalakoa".

Lodifobia "esan edo hitz soila baino askoz sakonagoa" dela uste du. "Haurra zarenetik pixkanaka-pixkanaka bide desberdinetatik

buruan sartzen dizkizuten ideiak dira, gizartean lodia den guztiaren aurka errotuta dauden us-teak". Bringasen iritziz, lodia izateagatik sortzen den bazterketa ez da arlo informalean bakarrik ematen, osasungintzan ere gertatzen dela deritzo. "Mediku bakoitzaren arabera da, baina askok edozer duzula ere, dena beti pisua-rekin erlazionatzen dute. Nik azaleko arazoak izan ditut, eta lehen aldiz artatu ninduen dermatologoak esan zidan elikadura zela nire arazo nagusia. Dietan hastea agindu zidan, garbi janda pasatuko zitzaidala eta. Oso oker zebilen, denbora tarte hartan okertu besterik ez baitzitzaidan egin arazoa. Espezialistaz aldatzeko eskatu nuen, bigarren iritzi bat izateko, eta, azkenean, jakin nuen nire azaleko arazoak ez zuela zerikusirik elikadurarekin".

Zumaiarrak aitortu du bera berez dela "handia eta zabala", baina ez dela beti egoera berean egon, "bakoitzak bizi duen une pertsonalak eragin zuzena" duelako gorputzean. "Garai batzuetan besteetan baino argalago egon naiz. Orain, adibidez, bigarren semea izan berri dut, eta pisua hartuta nago. Jakin badakit erosoago sentituko nintzatekeela taila eta erdi jaitsiko banu, baina hala eginda ere, gizartearentzat lodi egoten jarraituko nuke". Horregatik, bere buruari ez dio eskatzen gorputz eredu normatiboaren barruan sartzea, uste duelako "norberak erabaki" behar duela nola sentitzen den gustura, "gainontzekoen iritziei jaramonik egin gabe". Bringasen iritziz, gakoa "pertsonak diren bezala onartzea" da. "Bata bestearengandik desberdinak garela naturaltasunez hartu behar dugu, denak molde desberdinekoak garelako. Ezaugarri horiek ez genituzke irain bezala erabili behar. Harrigarria da haurrak bata besteari 'potolo', 'gordo' eta horrelakoak deitzen zeinen goiz hasten diren ikustea". Arlo horretan, autoestimua eta autozaintza "lan handia" egin behar dela uste du, "astakeriarik ez egiteko". Zehaztera jo du: "Gizen egotea osasuntsua ez dela sinetsita egongo dira asko, baina argal egoteko buruko gaixotasunak izan dituztenak ere asko dira. Nire ama zenak esaten zidan gorputzari eskerrak eman behar dizkiogula, horri esker bizi garelako. Beraz, zaindu eta maite dezagun gure gorputza, eta adiskidetu gaitezen berarekin, bizitza bizitzeko da eta". ■



Mikrofono atzetik, fokupera

Maitane Urbietak, kirol kazetaria

Irratian futbola kontatzen hamabost urte daramatza Maitane Urbietak zumaia-
rrak. Azkenaldian sona handia hartu du haren izenak, Europako Ligako partidak kontatzea egokitu zaiolako. Realzalea da, eta taldearen partidak irratiko entzuleei ikusgarriak egitea izaten da haren lana. "Kirol kazetaritzak duen askatasun horretan libre" sentitzen da Urbietak.

Testua: **Maria Maya Manterola**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

Pistan gertatzen dena zuzenean entzuleei helaraztea eta kirolariak elkarriketatzea izaten da bere lana, baina gaurkoan, Urbietak jarri da elkarriketatuaren azalean. Aitortu du elkarriketatzen aritzen dela eroso: "Nahiago dut hizketaldia nik zuzendu".

Europako Ligako partidak irratiz ematen emakume bakarrik izan da, eta horrek askotan eraman du Urbietak elkarriketatuaren aldera. "Harrabotsa" sortu zuela dio, eta baita bolada batean bere izenak oihartzuna hartu zuela ere. Garaioetan hori albistea izatea bera seinale txartzat du, ordea: "Ez dut begi onez ikusten, XXI. mendean, emakume batek futbol partida bat kontatzea halako albistea izatea". Izan ere, Urbietak azaldu du ezagutzen dituela bere lan bera egiten duten emakumeak, eta horren atzean dagoena haiei lan hori egiteko aukerarik ez ematea dela. "Arazo bat erakusten du", iritzi dio.

Urbietak uste du berak aukera hori irratian hasi zenetik izan zuela. "Gure erredakzioan denak kazetariak ginen, eta ez genituen gauzak

generoaren arabera banatzen. Egiten nituen gauzak, nire lankideek egiten zituzten bezalaxe. Orain dela hamar urte Bera Berak liga irabazi zuzenean nik kontatu nuen; ez naiz sekula erredakzioan emakume izateagatik baztertuta sentitu", esan du. Kontrara, gaiaz badakiela erakutsi behar izan du erredakziotik kanpo. Urbietak azaldu du beti kontatzen duela anekdota bera: "Osasuna Bigarren Mailan zegoenean, Extremaduraren aurka eduki zuen partida, eta hango kazetari batzuekin egin nuen Sagarreko kabinetarako bidea, eta txundituta geratu ziren. Galdetu zidaten ea nik zer nekien futbolaz, eta galdera hori ez lieke egingo beste gizona bati".

Kirol kazetariaren arabera, "irudi bat emateagatik" kokatzen dira batzuetan emakumezkoak mikrofonoaren aurrean, baina, emakumezkoen kirola erretransmititzea, esaterako, gehiago kostatzen da. "Etxeak ez du sinesten, zeren ez da benetako apustua egiten. Azalekoa da aldaketa", iritzi dio. Kirol kazetaritzan bakarrik ez, albistegietan ere aritua da Urbietak. Edonola ere, kirolari lotutako kazetaritzarekin sentitzen da eroso:



irimarra



"Naturalago izateko aukera ematen dizu. Informatiboetan zuzena eta zorrotza izan behar duzu; ezin zara zu zeu izan. Kontaketak askatasun bat ematen dizu, zurruntasun horretatik atera zaitezke, eta ni askatasun horretan oso libre sentitzen naiz". Praktikak eraman du martxa hartzera, Urbietaren hitzetan: "Ez nuen espezializaziorik egin, kontatu ahala ikasi nuen". "Erraza" da Urbietarentzat bere lana, "ikusitakoa kontatzea" besterik ez baita harentzat: "Entzuten ari direnak ez dira ikusten ari, beraz, ikusgarria egin behar da. Saiatzen naiz ikusten dudana hori helarazten, eta futbol neurketa batek duen emozio eta pasio hori transmititzen". Jokalariak eta partidaren nondik norakoak dira aurrez kontaketarako prestatu ditzakeenak, kazetariaren arabera. Partidak "zer kontaturik ez badu", berriz, adituak "makulu onak" izaten dira, Urbietaren arabera. Kirolzalea ez dena beren saiora –Hiru Erregeen Mahaia– erakartzen saiatzen direla azaldu du, eta helburu hori lortzen dutelakoan dago kazetaria. "Giro ona dugu geure artean, eta hori ezinbestekoa da. Asteburuetan hamabost urte daramatzat lanean, eta nire lankideak ere egoera berean daude. Hor baldin bagaude, ondo pasatu eta ondo pasatuarazteko gaude. Gure artean dagoen lotura hori beharrezkoa da".

Urbietak "betidanik" entzun izan du irratia, eta uste du horregatik "barneratuta" daukala kontakizunak behar duena. "Talde batzuk ezagunak dira, eta beste batzuk, ez. Plantillak ateratzen ditut kontaketa aberasten duten datuekin, baina gainerakoa atera egiten da, eta sentitzen baduzu, askoz ere errazagoa da dena", dio.

Irratia piztuta, txikitatik

Urbietak gogoan du txikia zenetik irratia piztuta izaten zutela etxean: "Gauetan, hiru logeletan

izaten genuen piztuta, eta igande arratsaldeak irratia itsatsita gogoratzen ditut, Realaren partida entzuten". Aurtun zendu den Iñaki de Mujikaren ahotsean entzuten zuten futbol zelaian gertatutakoaren berri, eta gogoan du "handitan" hura bezalakoa izan nahi zuela Urbietak: "Batzueta ohartzen naiz amets hori bizitzen ari naizela, eta pribilegiatua sentitzen naiz".

Erredakzioan izan duten bekadun batentzat, berriz, Urbietak bera da erreferentea: "Bera ere emakumezkoa zen, eta nik uste dut emakumezkoek ikusten dutela ate bat zabaldu dutela. Prentsaurrekoetara joaten naizenean hamabost bat lagun egoten gara, eta bi gara emakumezkoak".

Hamabost bat urte daramatza Urbietak kirol kazetaritzan, eta atzera begira, Bera Berak liga irabazi zueneko du gogoan: "Castron nengoen, eta kontaketa egin nuen moduagatik zoriondu ninduen nagusiak. Egun polita izan zen, eta asko etorri dira haren atzetik". Realzalea da Urbietak,

Maitane Urbietak

- **Adina:** 40 urte.
- **Ikasketak:** Kazetaritza.
- **Lanbidea:** Kirol kazetaria.
- **Kirol kazetaria ez banintz...** Ez dut sekula b planik izan.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Lanera joan aurretik aprobetxatzen dut haizea hartu eta mendi buelta bat egiteko, ateratzen naizenerako ilunduta egoten delako.



eta emakumezkoen taldearen Kopako partida kontatzea egokitu zitzaion Granadatik (Andaluzia, Espainia). Hura "egun berezia" izan zen kazetariarentzat, eta partidak ez ezik, gogoan du beren kontakizunak izan zuen oihartzuna ere. Gizonezkoen finalaz ere mintzo da: "Final deskafeinatua izan zen, zalerik ez zelako egon, eta han geundenok pribilegiatuak sentitzen ginen. Ez nuen kontaktarik egin, baina erretransmisioaren parte izan nintzen". Bere ibilbidearen "beste aro bat" izan da Realaren

partidak kontatzearena. Duela bi urte jakinarazi zioten horretarako aukera izango zuela: "Ez da inoiz izan helburu bat, nahia baizik, eta beteta sentiarazi nau. Ez zidakeen frustraziorik sortuko ez lortzeak, baina orain lortu dudanez, bete egiten nau. Pena bakarra daukat: hori jakinarazi baino lehenago zendu izana nire aita. Irratizalea eta Realzalea zen aita, eta harekin partekatzen nuen nire ametsa. Bera gabe amets hau bizitzearen arantza daukat barruan". Partida berezietan gogoan izaten du Urbietak aita zena. ■

Baleike pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna aldizkaria@baleike.eus e-posta helbidera bidali uztailearen 20a baino lehen.

Saria: TIPITakin bi lagunentzat gosari eder bat.

Baleikeko Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Ekaineko Baleike aldizkarian Baleike pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 10. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta **Iker Zulaika** bazkidea izan da irabazlea.



Bost itsaslapur hauek sekulako altxorra dute zain, baina bik besterik ez dute bidea aurkituko. Nortzuk?

ALTxorren bila

SUDOKUA

	U			H	N
N		H			U
		Z	U		
	N		H		Z
	H			Z	U
	Z	N		I	

Loroek hiztun fama dute, ezta? Bete itzazu hutsuneak HIZTUN hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (H, I, Z, T, U eta N). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



Baiez HAMABI!

Horra hemen bi itsaslapur. Bata bestearen ispilu direla ematen du baina ez dira erabat berdinak. Aurkitu bien arteko aldeak. 12 dira guztira.



Bikotea

Loro hauenartetik bat bi aldiz ageri da. Zein da?

Erlaxazio jolasak



MIREIA CENTENO

PSIKOLOGOA

Azken urteetan asko entzun eta hitz egin dugu Mindfulness kontzeptuaz. Praktika hau asko zabaldu da gure egunerokotasunean, eta asko laguntzen du ongizate psikologikoa lortzeko bidean. Alde batetik, arreta gaitasuna garatzen da, orain eta hemen gertatzen ari denaz kontziente izan behar garelako. Emozioak identifikatzeko entrenamendu bat ere bada, norberaz kontziente izan behar garelako mindfulness praktikatzen ari garenean eta, azkenik, autokontrola ere asko lantzen da.

Modu asko daude mindfulness praktikatzeko, eta askotan, oso modu sinple eta atseginean egin dezakegu, gure egunerokotasuneko ekintzak aprobetxatuz. Gainera, udako oporraldia oso momentu aproposa izan daiteke haurrekin jolas ezberdinak egiteko. Hona hemen jolas batzuk:

MODU ATSEGINEAN EGIN DEZAKEGU, EGUNEROKOTASUNEO EKINTZAK APROBETXATUZ

Soinuak: Begiak itxi eta gure inguruan entzuten ditugun soinuak identifikatu eta esan. Txoriak, autoak, hostoak... oso aproposa naturan gaudenean naturaren soinuak identifikatzeko. Minutu bat egon gaitezke entzuten begiak itxita, eta gero bakoitzak entzun duenari buruz hitz egin dezakegu. Soinu bakoitzak guregan eragin duenaz hitz egitea ere oso aberasgarria izan daiteke.

Dastamena: Begiak itxita, janari goxo ezberdinak aurkeztu ditugu. Helburua jaki hori zein den asmatzea izango da, baina horretarako, oso garrantzitsua izango da jaki hau ondo dastatzea; horregatik, oso poliki jan behar da. Ariketa hau gure eguneroko jatorduetan noizbehinka egitea ere oso gomendagarria da, poliki eta gozatuz jaten ikasteko.

Bizkarrean idaztearen jolasa. Bikoteka jarriko gara, eta batak bestearen bizkarrean izenak idatzi edo figurak marraztuko ditu besteak zer den asmatzeko. Modu honetan, gure gorputzaren sentsazioez kontziente izan behar gara.

Usaimen tailerra: Dastamenarekin bezala, usain goxoa duten produktuak lortuko ditugu eta, begiak itxita, horiek usaimenaren bidez identifikatzen saiatuko gara.

Loreak, landareak, espeziak, perfumeak...

Arnas laguna: Lurrean etzanda, panpina bat tripa gainean jarriko dugu eta hori nola mugitzen den begiratuko dugu. Gure arnasa hartzeko moduaren arabera, mugimendu ezberdinak egingo ditu.

Bihotz taupadak: Helburua gure bihotz taupadak nola aldatzen diren sentitzea izango da. Horretarako, ariketa ezberdinak egingo ditugu, intentsitate ezberdinarekin. Korrika, salto, geldirik egon... eta ariketa bakoitza egin ondoren, gure bihotz taupaden erritmoa aztertuko dugu.

Gure soinuak: Belarriak tapatuta eta begiak itxita, soinu ezberdinak egingo ditugu: erlearen soinua, motorraren soinua, sugearen soinua,... eta soinu bakoitzak gure barruan eragiten dituen bibrazioak aztertuko ditugu. Gero, gehien gustatu zaizkigunak azal ditzakegu. ■■■



CROISSANTERIA



pizzak
hanburgesak
bokatak....

Marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

maximus PENCIL
estudio decoración



Julio Becerra, 2 - ZUMAIA
699 49 52 56
maximusencil@gmail.com
Beltu edozeratza, surretiko hitzenbuzkin agian dut lan

MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea



Ursula plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

NOIA S.L.
**TAILERRAK ETA
KARROZERIARIK**



Elegabeke garabi zerbitzua 636 86 78 12 (Zumaia)
609 83 44 38 (Iztur-Deba)

Hego kalea, 83 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943-86 13 63
zumaia@carroceriasnoia.com

Iztur Indutrigunea, C
20820 - Iztur-Deba
Tel.: 943-60 62 91
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com

OREKA
KIROPRAKTIKA



Aita Mari, 17 behe - Zumaia
943-02 04 77
info@orekakiopraktika.com @oreka.kiopraktika

OSA
BERNIZATUAK



Zorwen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 - tel. 943-86 14 12 - 686 36 41 49

MUSTOLAZA



MUSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

José Mari Korta Indutrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 30 88 - Fax 943 86 13 45
www.mustolaza.com - e-mail: ota@mustolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Becerra Biltokia, 1 - 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mustolaza@mustolaza.net www.mustolaza.net

SOLOZABAL
autoeskolak



Etxezarreta, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

Talasia
taberna • jatetxea



Santiago aztoa, 4 Tel. 943-14 33 78

Tapaia
taberna



Estazio kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 13 73

TTAKUN TABERNA



Izurtari, 3
tel. 943-86 52 81

TXIMISTA
garagardotagia

Ogitartelokak
Plater konbinatuak
Txemi-ukondokak (jodilloak)
Solatriskak, oilaskok
Garagardokak aukeran

Ondarra plaza, 4 behe - tel. 945 573 905

UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA



Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantabri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna



Eusebio Gurmuzaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel: 943-11 63 97

yoana
ileapaindegia



Amalia plaza,
2 behe
943-14 32 78

Zalla
taberna



• plater konbinatuak
• ogitartelokak
• oilasko erreak

Ursula Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA

Herri langileak eta euskara

TESTUA: IMANOL AZKUE IBARBIA

@ImanolAzkue

ILUSTRAZIOA: DANIEL CARBALLO

OSTOLAZA

Tarteka, aldian behin, polemika pizten zaigu, haserretzen zaizkigu eta haserretzen gara, lanpostu publiko batzuk lortzeko euskara maila jakin bat eduki beharra dagoelako, udaltzain izateko zer hizkuntza-eskakizun behar den epaile batek erabaki nahi duelako, Nafarroan alemanak eta ingelesak puntu gehiago ematen dituelako euskarak baino... Horrelakoetan, ez da txarra atzera begiratzea eta egiaztatzea Zumaian, lehen, lanpostu publiko bat lortzeko, gehien-gehienetan nahitaezkoa zela euskara jakitea, edo aukerari, euskalduna lehenesten zutela. Udaleko agiri zaharretan begiratura, horren frogaraz dauzkagu, eta 1882-1935 arteko batzuk ekarriko ditugu hona.

Medikua

1882an, Ildefonso Zabaleta sendagilearen eskaera, iragarkia ikusi zuela eta: "Y en virtud de los documentos que quedan señalados, y **reuniendo también la circunstancia que expresa la condición 2ª de las que sirven para la provisión de la plaza vacante de hablar correctamente el vascuence como hijo de este país**" ¹.

1885ean, berriz, iragarki hau txertatu zuen Zumaia Udalak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean:

"Anuncio. Se halla vacante la plaza de Médico titular de esta villa por la renuncia del que la obtenía, dotada con doce mil reales anuales poco más o menos que se pagarán, ocho mil de los fondos municipales por trimestres y los cuatro mil restantes por conducción de los vecinos, las condiciones estarán de manifiesto en la Secretaría del ayuntamiento. Los aspirantes a ella presentarán sus solicitudes en el término de un mes de la inserción de este anuncio en el boletín oficial, **siendo preferido el que posea el idioma vascongado**, teniendo derecho a la pretensión de esta plaza aun cuando sean médico cirujano y existe además en esta villa un cirujano. Zumaya 17 de Agosto de 1885. Sebastián de Garchotenea" ².

Praktikantea ³

1900ean, lanposturako deialdia eginda, 21 instantzia jaso zituzten, eta horietatik zazpi hautatu zituen udal medikuak, euskara galbahetzat hartuta: "Por orden del Sr. Presidente yo el Secretario dí lectura de las veintiún instancias de otros tantos solicitantes a dicha plaza como así bien los documentos que a las referidas instancias la acompañaban, y teniendo presente primero; que por el Sr. Médico titular **se hizo la selección de siete que poseen el idioma vascongado**" ⁴.

1924an, aldiz, bi hautagai zeuden: "La Junta examinó ambas solicitudes así como los documentos que acompañaban a cada una de ellas, apreciando que ambos aspirantes parecían **suficientemente aptos** para desempeñar la plaza vacante" ⁵, eta Gregorio Zapater Egaña aukeratu zuten, esperientzia handiagoa zeukalako: "haber practicado durante el **mínimum de un año a las órdenes de un Sr. Médico, y su condición de hijo de este pueblo**". Hau da, herrikoa izatearena euskaraz jakitearekin pareka zitekeen.

1924an, azkenik, bi eskaera izan ziren:

"fueron reconocidos análogos méritos de suficiencia y capacidad por profesionales de ambos solicitantes y teniendo en cuenta que en el de Gerardo Álvarez Fernández **concorre además el mérito de poseer el vascuence** según acredita por certificado expedido por el Médico titular de Gabiria D. Luciano Muñagorri Altuna, el quien certifica que en los cuatro años que lleva en Gabiria a sus órdenes **se ha entendido muy bien con los clientes, a pesar de que la mayoría no saben el castellano, lo que le hace creer que sabe el vascuence** lo suficiente para cumplimentar su misión" ⁶.

Txaperoa (udaltzaina)

1902an, deialdia: "declarar la vacante de dicha plaza por el término de quince días, o sea hasta el día 6 del próximo mes de Junio, con la advertencia de que el agraciado tendrá que tener la edad de veinticinco a cuarenta años, saber leer y escribir y **poseer el vascuence**" ⁷.

1914an, berriz, Udalak hiru deialdi egin zituen eta inor ere ez zen aurkeztu. Azkenean, kanpotar bat aurkeztu zen, José de Miguel Brea, eta batzordekide gehienak bitarteko edo interino hartzearen alde agertu ziren, lau hilabeterako. Baina bazen ados ez zegoenik: "El vocal de la Comisión D. Miguel Trueba, hace constar que es opuesto al nombramiento que se propone interino y menos **efectivo a persona alguna que desconozca el idioma vascongado**, con cuya salvedad firma el informe" ⁸. Trueba zinegotzi abertzalea zen.

1919an, José de Miguel Break uko egin zion udaltzain izateari eta Polizia Batzordeak eskatu zuen bakantea iragartzeko eta plaza ateratzeko, eta kaboa ere behar zela; baldintzetan hauxe jarri zuten: "Y que V.S. al anunciar ambas plazas **consigne la condición indispensable de que los agraciados deben ser vascongados**, de buena conducta y de 25 a 45 años" ⁹.

Albaitaria

1903an: "acuerdan se anuncie la vacante desde luego, con el mismo tipo de dotación y bajo las condiciones que a este efecto tiene confeccionadas y **se haga saber en el anuncio**

que será condición indispensable sepa el vascuence

y tenga tres años por lo menos de práctica en su profesión" ¹⁰.

1911n, berriz, hau: "Acuerdan se anuncie la plaza vacante del Veterinario Titular de esta villa, con el sueldo anual de 400 pesetas y habitación gratuita, bajo las condiciones establecidas al efecto y **con la condición de que en iguales condiciones será preferido el que posea el idioma vascongado**" ¹¹.

1931n, aldiz, hau: "Y facultan al Sr. Alcalde Presidente para que establezca las demás condiciones convenientes para el desempeño del cargo, entre las cuales ha de incluirse precisamente de que el concursante **há de poseer el 'euzkera' con perfección**" ¹².

1932an, azkenik, ohi bezala iragarkia jarri zuten prentsan, baina bada bitxikeria bat, alkateak azaldua, zergatik kostatzen zitzairen hainbeste albaitariaren lanpostua betetzea:

"Con respecto al concurso que se acaba de resolver, el Sr. Alcalde-Presidente manifiesta: que, como todos recordarán, se publicó en *La Gaceta de Madrid* ¹³ del 20 de Mayo último, el anuncio del concurso para provisión en propiedad de la plaza de Inspector Municipal Veterinario de esta Villa y Partido, pero **omitiendo en las condiciones, la de que los concursantes necesitaban acreditar la posesión del vascuence o idioma regional**, que, en

vista de dicha omisión, se dirigió el Ayuntamiento al Ilmo. Director de Ganadería e Industrias pecuarias, en solicitud de que fuera anulado el anuncio y volviera a anunciarse el concurso con aquella omisión subsanada, a lo que accedió aquella Dirección General, publicando el anuncio que ha servido de base al concurso resuelto en esta sesión extraordinaria; que, por otra parte, y en el plazo señalado en aquel primer anuncio para la tramitación de solicitudes, no fue presentada ninguna, y **tampoco en este segundo concurso se veía manera de que se presentara ningún concursante que llenara los requisitos exigidos, y muy particularmente, el de poseer el "euskera" que se considera como imprescindible**; y que la causa comprobada de esta ausencia completa de concursantes es el escaso rendimiento económico que ofrece este Distrito Veterinario" ¹⁴.

Musika bandako zuzendaria

1903an: "Acuerdan se anuncie a concurso la vacante de la plaza de Director de la Banda para ponerla en propiedad, **poniendo por condición, que en iguales condiciones será preferido el que posea el idioma vascongado** y sepa ejecutar el silbo y tamboril" ¹⁵.

1919an ere bai:

"Seguidamente se acordó anunciar la vacante de la plaza de Director de la Banda municipal y Maestro de solfeo con el cargo anexo de

enseñar los primeros estudios de piano a dos becarios, con el sueldo de entrada de 1.500 pesetas con la advertencia de que las solicitudes se recibirán en la Secretaría del Ayuntamiento hasta las seis de la tarde del día 11 de Enero próximo y **condición indispensable la de poseer el vascuence**" ¹⁶.

Musika irakaslea

1931n: "Al objeto, fue dada lectura de las condiciones que sirvieron de base para la provisión de la última vacante de esta misma plaza y merecieron la unánime aprobación del Ayuntamiento, con las únicas modificaciones de establecer la edad del concursante entre 25 y 45 años, **la de exigir la posesión del 'euzkera'**" ¹⁷.

Elizako organista

1905ean:

"De la instancia suscripta por Don Manuel G. Beobide, Cura párroco de la Iglesia parroquial de San Pedro Apóstol de esta villa en nombre y representación de la Junta parroquial que preside por la que manifiesta que ha vaciado la plaza de organista de la expresada parroquia por el fallecimiento del que la desempeñaba, y que la expresada Junta en su sesión ordinario del día 30 del pp^{do} mes, acordó se provea dicha plaza en **un organista vascongado de suficiente instrucción musical**" ¹⁸.

Udal idazkaria

1923an, Jose Etxabe Olaizolak, behin-behineko idazkariak,



hauxe dio bere buruaz: "para cuyo desempeño se cree con la suficiente aptitud, que justifica con el título de licenciado en Derecho y **certificado de posesión del 'euskera'** que tiene el gusto de acompañar a la presente" ¹⁹, eta beste hizkuntza batzuk ere bazekizkiela: frantsesa "conoce" eta "tiene nociones de inglés". Agirietan: "título de licenciado en Derecho,

certificado de conducta irreprochable y de **posesión del 'euskera' con perfección poco común**". Idazkari izendatu zuten, "por aclamación". Berez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko iragarkian, ez zegoen adierazita hizkuntza-eskakizunaren baldintzarik.

Zerga kobratzailea

1925ean, zerga kobratzailearen lanposturako baldintzetan: "4º



Será apreciado como mérito de los aspirantes que estos posean el "euskera" con la perfección necesaria para entenderse con las personas que ignoran el castellano" ²⁰.

Brigadako burua

1935ean: "Reglamento para la provisión y desempeño del cargo de "Encargado de obras y servicios municipales" (...) ^{4º} Será apreciado como mérito de los aspirantes, el que estos posean el "euskera" con la perfección necesaria para entenderse con las personas que ignoren el castellano" ²¹.

Beste zenbait lanpostu

1928an, Zumaiaiko Udalak lanpostu hauek atera zituen: txaperoburu edo kaboia, alondegiaren arduraduna, zerga biltzailea eta txaperoak (2 plaza). Bost lanpostuetan, guztietan, lehena hau:

"Condiciones precisas: Primera: **Posesión del vascuence.** Segunda:..." ²². Beste baldintza batzuk: alkateak onartzea, osasuntsu egotea, armak erabiltzen jakitea...

Beraz, langile publikoei euskara eskatzea ez da kontu berria gurean. Duela 150-100 urte euskara eskatzen zuten, batez ere, arrazoi praktikoengatik: zumaiair gehien-gehienek ez zekitelako gaztelaniaz eta euskara beharrezkoa zelako herritarrekin hitz egiteko eta komunikatzeko; gaur egun, berriz, euskara eskatzen dugu euskaraz bizi nahi dugulako zumaiair askok; zoritxarrez, ordea, sarritan ezin... ■■■

¹ Zumaiaiko Udal Artxiboa 80.03, 1882-08-28.

² ZUA 80.03, 1885-08-17.
³ Praktikantea: gaixoari injekzioak jartzeaz edota zauriak sendatzeaz arduratzen den erizaina (Harluxet entziklopedia).
⁴ ZUA 2829 (24V), 1900-07-19.
⁵ ZUA 2846 (20V), 1924-01-26.
⁶ ZUA 2846 (30), 1924-06-28.
⁷ ZUA 2830 (141), 1902-05-26.
⁸ ZUA 2837 (181), 1914-01-29.
⁹ ZUA 2842 (262), 1919-02-30.
¹⁰ ZUA 2830 (322), 1903-01-22..
¹¹ ZUA 2835 (74), 1911-05-11.
¹² ZUA 2849 (22), 1931-05-16.
¹³ *La Gaceta de Madrid*: Madrileko aldizkari ofiziala, 1697-1936 artean argitaratu zena. Gero *Boletín Oficial del Estado* ordezkatu zuen.
¹⁴ ZUA 2849 (22), 1931-05-16.
¹⁵ ZUA 2830 (402), 1903-03-26.
¹⁶ ZUA 2843 (60), 1919-12-11.
¹⁷ ZUA 2849 (31), 1931-06-06.
¹⁸ ZUA 2831 (216), 1905-05-04.
¹⁹ ZUA 2844 (158V), 1923-02-17.
²⁰ ZUA 2846 (87), 1925-02-21.
²¹ ZUA 2851 (395V), 1935-09-28.
²² ZUA 2847 (114), 1928-11-25.

DOAN EZ DA DEBALDE



**ZURE EKARPENA BEHAR DUGU.
EGIN ZAITEZ BAZKIDE.**

bazkide@ukl.eus o 943-81 38 41

Berpiztu eta sortu

ARGAZKIA ETA TESTUA: SONIA ALVAREZ

"Bizi eta ikasi
muga unibertsoa,
argia eta soinua
gure bidea,
berpiztu eta sortu
gehitu elkarlana".

Eskerrik asko, @antuxuna ■■■





Nondik gatoz? Zer gara gu? Zer egin behar dugu? Nora goaz?



LUCYRENGANDIK KANTENGANA. GIZA ANIMALIAREN BIDAIA MIRAGARRIA

Egilea: Jon Sudupe Martija

Argitaratzailea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Argitaratze urtea: 2022

Orrialdeak: 256

Generoa: Saiakera



TESTUA: ANTTON PEÑALBA

Oraingoan, herriko saiakeragile baten lana ekarri nahi izan dut txoko honetara. Urteak daramatza Jon Sudupe azkoitiar-zumaiarrak saiakeren munduan. Askok dira bere ibilbide oparoan argitara eman dituen liburuak eta eskuratu dituen sariak. Saiakera honekin agur esan nahi diot Baleikek herriko hainbat irakurleekin harremanetan izateko eman didan aukerari. *Lucyrengandik Kantengana. Giza animaliairen bidaia miragarria* da Jonek argitara eman duen azkeneko saiakera.

Gizakiok bi erresumetako herritarrek gara, bi mundutako kideak; mundu naturalekoak eta moralekoak. Txinpantze filosofoak gara. Aldi berean gara Lucy australopitekoa eta orain dela hirurehun urte jaio zen Kant filosofoa.

Darwinek hautapen naturalaren oinarriak finkatu zituen. Kant filosofoak, berriz, etikaren printzipio orokorrak aldarrikatu zituen. Giza animaliairen ibilbide harrigarria ulertzeko nahitaezkoak biak. Kantek hau galdetzen zion bere buruari: Zer da gizakia? Gizakia

izan zen Kanten gogoeten muina, alabaina, giza izaera ezagutzeko ez zeuden Kanten eskura gaur ditugun bitartekoak, izan ere, Darwin Kant hil eta lau urtera jaio zen eta 1952ra arte ez dugu datu fidagarririk izan giza animaliaz zentzuz hitz egin ahal izateko.

Orain eboluzioaz gehiago dakigula, berriro ere filosofo alemaniarrak bere buruari egiten zizkion galderak egin ditzakegu: zerk egiten gaitu gizon-emakume? Zerk bereizten gaitu gainerako animalieganetik? *Homo sapiens* deitu zuten giza espeziea zertan bereizten zen gainerakoenganetik? Eta hortik galdera nagusira: etikak oinarri naturala du, hautapen naturalaren eta bilakaera genetikoaren ondorio hutsa da, ala gairitu egiten du natura?

ANIMALIA HUTSAK ALA BEREZIAK GARA? ZER LEKU DAGOKIGU GIZAKI BIZIDUNEN ERREINUAN?

Ez natur zientziak ez gizarte zientziak eman digute galdera hauen behin betiko erantzunik: Zer gara gu? Animalia hutsak ala bereziak? Zer leku dagokigu gizaki bizidunen erreinuan? Agian Kant eta Darwinen bat-egitetik egongo gara erantzuteko moduan.

Nola uztartu, baina, Kant eta Darwin, biologia eta kultura, eboluzioa eta etika? Bateragarriak ote Transzendentalismoa eta Naturalismoa?

Funtsezko galdera horiei erantzuteko hamaika zientzialariren eta pentsalariren gogoetak aurkituko ditugu liburuan. Bioetikatik, genetikatik, epigenetikatik, soziobiologiatik, psikologiatik, etikatik eta filosofiatik gizakiaren izaerari egin zaizkion ekarpen ugari aurkituko ditu irakurleak.

Irakurketa pausatua eskatzen duen liburua dugu Jonen saiakera hau eta Nondik gatoz?, Zer gara gu? Zer egin behar dugu? Nora goaz? bezalako galderei buruzko hausnarketa sakona egiteko parada ezin hobea eskainiko digu. ■



Idoia

ARDOTEGIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86

BRADERIE

Dendak kalean

Egun osoan zehar musika,
denda postuak, eta giro aparta!

ZUMAIA

UZTAILAK 22

400€

zozketatuko dira erosketa baleetan



ZUMAIA
RIZITZEKO
DA



GERTU





BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK



San Juan auzoa, 16
AZKOITIA
943-85 21 10

Geltoki bidea, 1
ZARAUTZ
943-13 50 16

Santiago auzoa, 12
ZUMAIA
943-14 34 43